



## KONTATZEKO MOMENTUA

ETAren armagabetze zibilaren kontakizuna liburuan jaso du Enekoitz Esnaola kazetari azpeitiarrak 20



HORTZ INPLANTE  
ETA PROTESIETAN  
ADITUAK GARA.

  
I N N O V A  
HORTZ KLINIKA



# MATRIKULAZIOA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH

2018 - 2019

Pausoz Pauso  
etorkizuna eraikitzen



## AZPEITIKO IKASTOLA - KARMELO ETXEGARAI

Euskal Herria, 50 - Tfnoa.: 943 81 26 97 - [www.azpeitikoikastola.hezkuntza.net](http://www.azpeitikoikastola.hezkuntza.net)  
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza



### ZAINITZA ZERBITZUA

#### BI JANGELA

- Lehen Hezkuntzakoentzat
- Haur Hezkuntzakoentzat (logela eta guzti)

#### GARRAIOA

- Autobus bakoitza bere zainzailearekin



## UROLA IKASTOLA

Perdillegi, 3 - Tfnoa.: 943 15 02 28 - [www.urola.org](http://www.urola.org)  
DBH, Batxilergoak



### DBH

#### BATXILERGOAK

- Zientziak eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

#### ORIENTAZIO ZERBITZUA

#### JANGELA

#### GARRAIOA



# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarrria@uztarrria.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 201.a (2018ko urtarrila)  
**Urtea.** XIX.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685780412 /  
 uztarrria@uztarrria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilero  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** J. Frantzesena  
**Webgunea.**  
[www.uztarrria.eus](http://www.uztarrria.eus)

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**Oharra.** Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

## ||| 2018KO URTARRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



### iritzia

**Inkesta.** Ba al duzu arropa berrerabiltzeko ohiturarik? **13**

### mamia

**Elkarrizketa.** Izar Arregi psikologoa bullyingaz aritu da hizketan **04**  
**Klik.** Mamen Etxanizek 'Route 66' bizikletaz egin du **16**  
**Hondakinak.** Urte hasierarekin dator bilketa sistema berria herrira **26**



### jakiteko

**Atzera begira.** Sokamuturrak 500 urte beteko ditu aurten, eta ukuiluko irteera berreskuratuko dute **34**

**Ba al dakizu** Natulek eta uztarriak 'Azpeitiarrez Natul' Liburuxka aurkeztuko dutela hilaren 27an? **Uztarrria**

**Izan uztarriaren bazkide** 943 15 03 58

**Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

**1.060** bazkide **30** euro gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei. **dira urtean.**



**Liburuxka biografikoak, oraingoz.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

# IZAR ARREGI

psikologoa

## “Modu kolektiboan eragitea beharrezkoa da”

Bullyinga zer den eta nola detektatu daitekeen azaldu eta jazarpenari aurre egiteko aholkuak eta giltzarriak eman ditu Izar Arregi psikologoa. 📧📞 Ainitze Agirrezabala

**J**azarpenaren gaia lantzen urteak daramatza Izar Arregik bere kontsultan zein herriko ikastetxeekin eta eragileekin elkarlanean. Bullyingari aurre hartzeko umeen adimen emozionala lantzea “beharrezkoa” dela adierazi du.

### Zer da bullyinga?

Ikasleen artean behin eta berriz eta denbora jakin batean ematen den edozer eratako tratatu txar fisikoa, psikologikoa edo ahokoa. Bullyinga dela esateko ezaugarri jakin batzuk eman behar dira; esaterako, taldearen babesa duen ikasle bat bera baino botere gutxiago duen ikaslearekin sartzen denean, eta jazarpen hori luzaroan mantentzen denean ikusleak ez direlako ohartzen edo ez

dutelako salatzen. Biktimak jasotzen dituen erasoak, berriz, bur-lak, isolamendua, borrokak, azpi jokoak... izan daitezke.

### Nola detektatu daiteke semea edo alaba bullyinga sufritzen ari dela?

Haurren edo gaztearen adinaren eta izaeraren arabera, sintoma bat edo beste antzemango dugu. Txikiak direnean, 12 urte ingurura arte, errazago azaleratzen dute. Nerabeak direnean, berriz, gurasoekin duten konfiantzaren eta familiako egoeraren arabera, gehiago ezkututzen dute. Batzuetan, gurasoekin konfiantza izan arren, familia egoera zaila igarotzen ari bada –adibidez, banaketa prozesu bat, krisi ekonomikoa edo familiako norbaiten

### |||DATUAK|||||

|||Jaio. 1976ko apirilak 15.

|||Herria. Urrestilla, Azpeitia.

|||Bizi tokia. Zarautz.

|||Lanbidea. Psikologoa.

gaixotasuna–, gazteak ez du nahi lagunarteko arazoekin egoera gehiago okertzea edo pena ematea, eta ahal duen neurrian ezkutatu egiten du.

### Alabaina, denborarekin horiek ere azaleratuko dituzte zenbait sintoma, ezta?

Bai, hala da. Lehenik, haserre, urduri edo triste sumatuko ditugu, eguneroko ekintzetan parte hartzeko gogorik gabe. Gero, gauean lo hartu ezinda hasten dira, eta jateko ere gogo gutxi izaten dute. Arazoa larriagoa denean, berriz, ez dute joan nahi izaten eskolara. Bestelako sintomak ere izaten di-

tuzte: ohean pixa egiten hasten dira, azaleko urtikaria, ordenagailuko jokoen mendekotasuna, anai-arreba txikiagoekin jarrera desegokiak, amets gaiztoak, antsietatea... Isolamendua eta tratatu txarra luze doanean, ordea, depresioa jasan dezakete. Egoera larri horietan sufrimenduari ihes egiteko fantasian murgil daitezke eta lagun imaginarioak sortzen dituzte. Beste batzuetan, minik ez sentitzeko bide bakarra bizitzarekin amaitzea dela pentsatzen hasten dira.

### Teknologia berrien eta sare sozialen erabilerak zer lotura du bullyingarekin?

Gaur egun, 12 urtetik gorakoen artean ematen diren lagunarteko liskarretan eta bullying kasuetan



WhatsApp, eta, oro har, Internet bidezko irainak dira hizpide. Eta horrek zaildu egiten du bullying egoera detektatzea, sarritan mezuak anonimoak direlako. Gainera, iraina mezu bidez jasoz gero, ahoz ez bezala, 120 aldiz irakur dezakezu eta horrek are eta min handiagoa sortzen du.

**Zuk esana da haurretan ohikoa dela lagunartean arazorik izan gabe ere hainbat beldur izatea - banaketarena, konplexuak-, eta horiek umearen jarreran eragitea. Zentzu horretan, arrisku-tsua al da bullyinga ez dena bullying gisa hartzea?**

Bai, garapen ebolutiboaren parte da haurra errealitatearen gordin-tasunaz ohartzean beldurrak eta segurtasun ezak areagotzea. Sarri, 10 urte ingururekin, ezin izaten dute bakarrik lo egin, ohean pixa egiten hasten dira edo gurasoekin egoteko nahia izaten dute. Normalean, horiek haur azkarrak eta sentikorrek izaten dira. Izan ere, nahiz eta lagu-

narteko arazo berezirik ez izan eta familian giro ona izan, kezkek eta urduritasunak gain hartzen diete. Bolada bat da, eta ez du zerikusirik lagunarteko tira-birekin.

**Halakoetan gerta al daiteke gurasoek biktima bezala hartzea umea?**

Gurasoek seme-alabengan sinetsi behar dute, eta jabetu behar dute aipatutako jarrera horiek indar eta sentikortasun handiak dituztelako gertatzen zaizkiela, eta ez ahulak direlako. Gure seme-alaben egoera edo gertara batek pena eman edo kezka sor dakiguke, baina ez semeak edo alabak. Seme-alabek ikusten badute gurasoei pena ematen dietela, beraien autokontzeptua eta autoestimua asko jaisten zaizkie. Horregatik da garrantzitsua seme-alabekin enpatia eta motibazioa lantzea. Seme-alabak gai dira beldurrari, lagunarteko liskarrei, azterketetako presioari... aurre egiteko, eta guk hori gainditzen lagunduko diegu.

**Kontrakoa ere gertatzen da, ezta? Alegia, ume kontuak direla pentsatu eta gurasoek jazarpena ez ikustea.**

Bi muturreko egoerak saihestea komeni da; dramatizatzea eta minimizatzea eragotzi, alegia. Zenbait gurasok beraien lagunarteko bizipen mingarriekin konektatzen du, eta seme-alaben ohiko tirabirak benetako bullying egoera direla pentsatu eta transmititu dezake. Horren aurrean ematen diren erantzunak beldurretik eta jarrera defentsiboetatik datoz,

“Gaur egun, bullying kasuetan Internet bidezko irainak dira hizpide”

“Dramatizatzea eta minimizatzea, bi muturrak ekiditea komeni da”

eta egoera okertu daiteke. Benetako arazoak minimizatzen dituzten gurasoei dagokienez, nahikoa lan izaten dute beren bikote kontuekin, osasun egoerekin edo lan arazoekin, eta ez dute ikusten seme-alabek lagunarteko arazoak dituztela. Bestalde, gurasoek seme-alabengan itxaropen eta aurreiritzi handiak izan ditzazkete, eta ez dute ikusten balitekeela haurrak bolada txarra pasatzea edo laguntza behar izatea. Baiorak izatea ondo dago, baina kasu horietan gurasoek errealitateaz jabetzeko ezina izan dezakete, eta gaztearen lagunarteko tirabirei garaiz ez heltzeak arazoa korapila dezake.

**Bullyingaren biktimak zer nolako laguntza behar du?**

Lehen pausoa prebentzioa da. Semeak edo alabak lagunarteko arazoak dituenan, entzun eta ulertu egingo dugu, eta sentitzen duena sentitzen duela, zilegi eta normala dela esango diogu. Amorrua, negargura, ezintasuna, segurtasun eza, mendekatze

gogo, beldurra... gisako sentipen negatiboak izatea ez da txarra. Horiek kudeatzea deserosoa eta zaila da, baina berezko sentipenak dira, nahiz eta horiek estaltzeko joera izan. Adibidez, oso ohikoa den egoera bat da alaba meriendara ez dutelako gonbidatu negarrez etortzea. Ez dugu ikertuko nork ez duen gonbidatu edo nork ez duen babestu. Alaba besarkatu eta bere amorrua eta negargura jasoko ditugu, eta lasaitu ondoren azalduko diogu denborarekin gauzak bere tokian jarriko direla. Adin txikikoak badira, ideia desberdinak emango dizkiegu: "Bihar lagunei minduta zaudela esan diezaiekezu" edo "zure askarira ez dituzula gonbidatuko erabaki dezakezu". Nereba bada, sentipena entzutea eta beregan sinesten dugula adieraztea nahikoa izaten da. Horrez gain, hurrengo egunetan gaztearen sentipenen jarraipena egingo dugu: bermatuko dugu jateko gogoz eta hiztun datorrela eskolatik, esaterako.

### **Jada bullying egoera ematen bada, zer egin behar da?**

Orduan, zuzenean parte hartuko dugu. Arazoa mahai gainera atera behar da. Jazarpena egoki diagnostikatu eta egoera bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak detektatuko ditugu. Eskolara joango gara tutorearekin hitz egitera, eta kasu larria bada, lana sarean

egin behar da; Gizarte Saila, familia esku-hartzeko hezitzailea, ludotekako begiralea, entrenatzailea eta eskolako irakaslea, guztiak elkarlanean. Horrez gain, gurasoei aholkuak ematea eta gaztea trebatzea ezinbestekoak dira. Guztiok norabide berean eta bakoitzak bere esparrutik lana kontuz eginez soilik moztuko da jazarpena. Izan ere, bullying kasu baten aurrean ez gara entzule eta ikusle soilak, eta egoera kudeatzea ez dugu gaztearen gaitasunen gain soilik utziko.

### **Subjektu guztien elkarlari esker tratu txarrekin bukatzea lortu ondoren, zer pauso eman behar dira?**

Behin tratu txarra mozten denean, gaztearekin autokontzeptua lantzea komeni da. Tratu txarren ondorio larriena hori da, hain zuzen ere, nerabeak bere buruaz uste duena zaurituta geratzen dela. "Nik ez dut lagunak izateko balio" edo "nik beti zorte txarra dut" gisako ideiak baditu gazteak, joaten den tokira beldurtuta, oso lotsatuta, oso harro edo gezurrak esanez joango da, eta jarrerara defentsibo horrek berriro ere bullying egoerak sortzeko arriskura eraman dezake. Beraz, tratu txarrak jaso dituzten pertsonekin ideia positiboak landu behar dira: "Nire laguna izatea ederra da", "jada ikasi dut egoera horiek aztertzen eta gai naiz egoki

erantzuteko"... Azken helburua da bullying egoera batetik pertsona izaera aldaketik indartuta ateratzea, eta gaitasun sozialetan eta inteligentzia emozionalean gaituago izatera iristea.

Azken helburuak dira ikasgelan enpatia soziala sortzea eta talde giro egokia bultzatzea. Familiari dagokionez, berriz, xedea da balore egokiak barneratzea eta nukleo horretako partaide izatearen sentipena sustatzea. Beraz, bullying egoera bat arrakastaz gaindituz gero, denok gara irabazle.

### **Psikologoarengana jo ohi duena biktima da; baina jazarlearen kasuan, zer lan-ta egitea komeni da?**

Elkarrizketaren hasieran esan bezala, bullying egoera mantentzen duena da ikusleen isiltasuna edo haiek erasotzaileari ematen dioten babes. Azken ikerketen arabera, ikuslea inteligentzia emozional handikoa eta enpatia duena bada, eraso ikustean triste edo errudun sentitzen da, baina ez du indarrak ezer egiteko. Itxura denez, taldeko prozesu psikologikoak indar handiagoa du norbanakoaren baloreek eta indarrak baino, eta isildu egiten dira. Badirudi ikasle horien autokontzeptua ere zapuztu egiten dela, eta halakoak pentsatzera irits daitezke: "Uste nuen ausarta eta jatorra nintzela, baina berari burla egin diote eta ni isilik geratu

“BULLYING kasu baten aurrean ez gara ikusle eta entzule soilak”

“Xedea da bullying egoeratik pertsona indartuta ateratzea”

naiz. Beraz nik uste onena baino ahulagoa naiz”. Bestetik, badira axola ez zaien ikusle batzuk ere. Horiek inteligentzia emozional txikia dute, eta etorkizunean beraiek izan ditzaketek jarrera erasotzaileak.

Beraz, bullying egoera bat guztion artean mozten eta lantzen badugu, gizarte osoa izango da irabazle. Zentzu horretan, gizarteko baloreak dira landu behar ditugunak, eta individualismotik taldera, elkartasunerantz eta bizikidetzara helduago, zibilizatuago eta zorionsuago baterantz egin behar ditugu urratsak. Horregatik guztiagatik, denok dugu zeresana eta norbanako zein eragile eta erakunde guztien –udala, Gizarte Saila, aisialdiko taldea, ikastetxeak eta familia– ardura da elkarbizitza hobea baten alde borrokatzea. Modu kolektiboan eragitea beharrezkoa da.\*

# BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza zaharberritzea nahi duzu?



Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua  
Gremioen koordinazioa  
Epeak betetzea  
Erakusketa handiak

Aberriafu poligonos, 2  
Tel. 943 355 016  
Zarautz

Santiago aztoa, 12  
Tel. 943 343 443  
Zumaiola

San Justu, 16 edif. AXBU  
Tel. 943 852 110  
Azkoitia

Cespede Kalea, 18  
Tel. 943 348 241  
Zestoa

# Onura edo bakea? 'In' edo 'out'?

**G**ustura jakingo nuke aurtengo Gabonetan zenbat xake taula, zenbat Scalextric eta zenbat Lego eskatu ote dizkieten Olentzerori, Mari Domingiri, Bizar Zuriri, Meltxorri, Gasparri eta Baltasarri. Jakingo ote dute ume gehienek zertaz ari ote naizen ere...

Horiek izan ziren nire txikitako neguko jolasak. Hiru jolas ezberdin; hiru erritmo ezberdin; jokalaria ere ezberdinak; pentsatzeko era ezberdinak. Sentsazio ezberdinak eragiten zizkidan hiru jostailu horiek, bai horixe!

Xake taulak erronka, kontzentrazioa, estrategia, pazientzia lantzen eta frustrazioari aurre egiten erakutsi zidan. Aurkaria gurasoa izaten nuen, eta bere gustuko jolas horretan aritzen ginen tarteka. Gero anaiarekin, eta gero lagun batekin.

Scalextrica beste istorio bat zen, adrenalina zerotik ehunera igotzen zidan jolas zirraragarria! Zirkuitua muntatzea ere mundiala izaten zen. Gurasoek, bitartean, elektrikoak ziren konexioei eta koloredun kableei erreparatzen zieten, tentuz. Ez dakit nola, baina, itxaroten genekin. Bakoitzak bere karrerako kotxea pare-parean ipini, bakoitzak bere mandoa eskuan hartu, eta, telebistan bezala, gurasoek karrera irteerako keinua egin zain egoten ginen adi! Keinua egitearekin batera, gogor zapaltzen genituen mandoak, eta noski, bi kotxeak lehenengo bihurgunean bueltaka ateratzen ziren, pelikuletan bezala! "Eeeee, ikusi al dek, hil!". Autoak berriro ere zirkuitoan jarri eta horiek talka egin arteko onik ez genuen izaten.

Hirugarren jolasa Lego izan zen. Lehen, a *granell* saltzen zuten, eta Colón markako garbigailurako xaboiaren kartoizko ontzi batean izaten nituen piezak gordeta. Ez dut ahazteko ontziari buelta ematean piezak ateratzen zuten zarata! Oso urriak ziren leihoak, ateak, batekoak, teilak eta halakoak, eta horiek gordetzen hasten ginen ziztu bizian. Gero, buruan eraiki genuen hori Lego piezez egiten hasten ginen, edo saiatzten ginen. Hori bai, besteak zuen piezaren bat behar izaten genuen arte. Orduan,



||||||| **olatz aguado** |||||

||| 'On line' bizitzeko hautua egin dugu, 'out' ez egoteko eta besteei 'in' gaudela eta 'happy' bizi garela esateko

negozialetari ekiten genion. Horrela pasatzen genituen orduak jolasean eta negoziaketan. Aspertu eta piezak berriro kaxan gorde arte!

## Garaiak aldatu dira

Ziur nago, irakurle, nire adin ingurukoa bazara jolas eta sentsazio horiek zeure egin dituzula. Inoiz erreparatu al diezu jolas horiek emandako onurei? Gaur egun ere, xakea, Scalextrica, Lego eta antzekoak aurki daitezke jostailu den-detako apaletan. Baina jakin nahiko nuke apaletatik etxera zenbaterik egiten duen salto. Jakin nahiko nuke Olentzerori, Mari Domingiri, Meltxorri, Gasparri edo Baltasarri idatzitako zenbat eskutitzetan ageri diren hiru jostailu horiek.

Beste garai batzuk dira, ez dago dudarik. Teknologia indartsu sartu da gure bizitzetan; jada GPSa denok daramagu ipurdian. *Me gusta* jarraitzaile eta Facebooken esklabu egin gara. *On line* bizitzeko hautua egin dugu, *out* ez egoteko eta besteei *in* gaudela eta *happy* bizi garela esateko. Zertarako bestelako jolasak, "dena" gure eskuetan dugun leiho horretan badugu? Umeari mugikorra eta tableta eman eta bake santua izateko aukera badugu? Makina bat Mari Domingi eta Baltasar ikusi nuen Black Friday-an. ✘



# Idaztearen komeriak

**K**ontu ilunak, negatiboak idatzi izan ditudanaren errezeloa gainetik kendu ezinda nabil azkenaldian. Iruditzen zait gehiegi kexatzen naizela batzuetan, arrazoi faltarik izan ez arren. Jakina da poztea eta eskertzea ez direla ahuntzaren gauerdiko eztula, kexatzearekin alderatuz gero.

Adibidez, idazten eta irizten duen nor ez da erori Gabonetako kontsumoaz idaztearen inertzian, tentazioan. Errazagoa da kontsumismoaz, janari soberakinez eta egutegi kristauaz ozenki ikuspegi kritiko batetik idaztea, Gabonek positibotik izan dezaketen zerbaitetaz idaztea baino. Eta zein zaila aipatutako gaien inguruan zerbait berria kontatzea. Onargariagoa da kontsumismoaz aritzea, Gabonek sortzen dizuten liluraz aritzea baino.

Idazten duen nork ez du sentitu dakienari idazten uzteko beharra, ardura. Diozuna diozula, beti egongo da katedradunen bat, bi gradu, master bat eta historial akademiko amaigabea izango duen baten bat, edo besterik gabe, egia absolutuaren jabe dela uste duen handiusteren bat, irizten diozunari zorrozkailuaz punta aterako diona, edo testuingurutik argi urte bat aldendu.

Gainera, erdi debekatuta dugu iritzia aldatzea. *Hau esan zenuen, eta orain...* orain, idatzitakoa gordeta gelditzen da. Akabo. Zaila da asmatzen nola ihes egin genezakeen noizbait uste izan genuen hartatik, iritzien aurrekarietatik. Esan gabe doa, adierazpen askatasuna, nonbait existitzen bada, arantza mingarritz inguratuta izango dela.

Idaztea erraza omen da. Hala diote, behintzat. *Ama begira zazu* antzezlaneko antzezle batek zioen, kaka egitea ere oso erraza dela, baina batzuk egin ezinik ibiltzen direla sarri. Erraza izan, bada, boligrafoak edo teklatura oztopo bezain arma bihurtuko ez balira. Nik neuk, askotan, idazlea, iritzigilea, kazetaria, edo besterik gabe, idazten duena lepo aldean soka bat duela imajinatzen dut, eta auto-



|||||||||||||anartz izagirre|||

|||Askotan, idazlea, iritzigilea, kazetaria edo idazten duena lepoan soka bat duela imajinatzen dut

zentsura hitza tatuatua duen borragoma batekin idazmahaian.

## Koherente, nire kontraesanekin

Urtebete daramat hemen, idazten, naizena- ren edo uste dudana erakusleioa erazten, eta onartu behar dut hasierako egunetik badudala alboan koaderno beltz imajinario bat. Zer idatz nezakeen eta zer ez Azpeitiko herri aldizkarian irakurleak azpeitiarrak direla kontuan hartuta. Hau bai, hau ez.

Zertara dator hau?, galdetuko duzue. Jaten duguna omen gara, baina irakurtzen duguna ere bai. Sinestea ala ez sinestea, egia ala gezurra, gezurtia ala fidatzeko modukoa. Nik esandakoak iritzi publikoak izan dezakeen eragin hutsalaz jabetzen naizen arren, beti izango dut barruan korapilo bat.

Idaztea erraza da, bai. Iritzia ematea, ez horrenbeste, ordea. Etiketa bat jarri nahiko nieke idazten ditudan artikuluei: "Anartz ez da bere iritzia zugaran izan dezakeen eraginaren eta uler dezakezunaren jabe egiten". Aitor-tzen hasita, aitatu nahiko nizueke orain arte idatzi dudana ez dela nire iritzia ez beste ezer. Hori bakarrik, eta aldi berean, hori guztia. Nirea izan zitekeen, edo beste edozein herri- tarrena, eta ez luke inongo baliorik galduko. Iragezkiak iragezki, aburuak aburu, gaizki esandakoak barkatu, eta ondo esandakoak gogoan hartu.\*





EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

HARAKIN MAISUAK

**BASQUE  
LABEL  
HARATEGIAK**

— %100 —  
GURE BASERRITARREKIN  
CON NUESTROS BASERRITARRAS



EUSKO LABEL PRODUKTUTAN  
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA  
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO  
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL


## ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

AZPEITIA:

BALENTIN ODRIUZOLA HARATEGIA - Arana, 14  
MATXIN HARATEGIA - Harzubia Iribidea, 26

## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

# Urte bukaeran, Euskaraldia

‘Euskaraldia’ egitasmoa prestatzen hasi dira Azpeitian ere. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra euskaltzaleak egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak egitera bultzatzeko egitasmoa izango da.  Uztarria

**E**uskal Herriko hainbat herritan gisan, Azpeitian ere hasi dira *Euskaraldia* edo *Euskaraz 365 egun* egitasmoa prestatzen. 2018ko azaroa eta abendua artean, 11 egunez euskararen erabilera sustatzea du xede Eusko Jauriritzak eta Euskaltzaleen Topagunek ondutako proposamenak.


Euskal Herri osoan jarriko dute martxan egitasmoa azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, eta haren helburua da euskaltzaleak egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak egitera bultzatzea.

11 egun horietan 16 urtetik gorako herritarrek *ahobizi* eta *belarriprest* bilakatuko dira. Ahobiziaz ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egiten dieten pertsonak dira; belarriprestak, berriz, gutxienez euskara uler-

tzen duten pertsonak dira, gainerakoei euskaraz arietzeko gonbidapena egiten dietenak. Egitasmoan parte hartzeko izen-ematea zabalduko dute aurrerago, baina oraindik ere ekimena prestatzen ari dira herri herri.

Egitasmoa ez da ezerezetik sortu; hain zuzen ere, Agurainen (Araba), Donostiako Egia auzoan (Gipuzkoa) eta Lasarte-Orian (Gipuzkoa) egindako ekintzak ditu oinarrian, eta esperientzia horietatik abiatuta antolatuko dute tokian-tokian *Euskaraldia* egitasmoa hasi berri den urtearen hondarrean. 2017ko maiatzean aurkeztu zuten ekitaldia Udaltop jardunaldien barruan, eta euskararen inguruko hainbat eragile, erakunde eta norbanako aritu da egitasmoa lantzen.\*



Euskalgintzako eragileek-eta joan zen abenduaren 3an aurkeztu zuten ‘Euskaraldia’ egitasmoa Bilbon. 



Maite Iriarte.

## ESANA DAGO

“Oraindik emakumeon kirol esparruan lan asko dugu egiteko”

“Asko gozatu dut txapelketan. Dena den, nire lana baino gehiago txapelketa bera baloratuko nuke”

**MAITE IRIARTE**  
Emakume Master Cup-eko azpitxapelduna

“2.000 kilometro egiteak esfortzu handia eskatzen du, baina Vatikanora iristea sekulakoa izango da”

**SERGIO GOMEZ**  
Elkartasuna eta Itxaropena elkarte-ko lehendakaria

**IKA** Instalakuntza Elektrikoak  
argi lanak s.l.  
Urka: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71  
ikaargilanak@gmail.com www.ikasistemak.com  
20730 AZPEITIA

**CITROËN** 943 811 915 - AZPEITIA  
alertzaautoak@telefonos.net  
**MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK**

## Beste bat

**U**rte berri on. Egutegiko zenbaki beltzen zale izan arren, antzeman dadila Aiertzak, Oteizak eta Juliok, Betharramdarrek, ondo hezi nindutela. Urte zaharra joan eta berria etorri da, Olentzero joan da eta Erregeak iritsi dira; beti bezala, burua galdu eta *"la casa por la ventana"*.

Hotza, lehorra eta egoskorra naizela airtzeko arazorik ez dudana bezala, garbi esaten dizuet egun hauetan plastikozko irribarre gezurti hori nire aurpegian marraztea gero eta gehiago kostatzen zaidala. "Umeengatik egin ezazu", esaten didate, eta egiten saia-

tzen naiz. Eta orduan, soiltzen ari diren nire garuntxo maiteak eztabaidan hasten dira lepo gaineko ipar poloan, ileak zurituz. Umeengatik? Umeen zoriona plastikozko gezur hipokrita handi batean estalita geure bekatu guztiak zuritzen ditugu? Listua irentsi, bestaldera begiratu eta iparrik gabe segi aurrera.

Urte berriarekin batera, nik ere desiorik onenak opa dizkizuet xapo maitagarriok. Aurrean duzuen urkoari lasai begietara begirtzeko kemena izan dezazuen eta oheratutakoan serietik dakarkizuen kontzientzia alu



txetxu urbieta

horrekin lasai egotea desio dizuet guzti-guztiori.

Eta zutabea osatzeko gehiago idatzi beharrean hagoenez, jar hadi Txetxu beste aldarre batean eta tajuzko desio batzuk ere eska hitzak. Urrea garak, urre izaten jarri dezala; Ilunpean ilargiaren argiak indarra izan dezala; lagun onei sanmiguelak txispa eman diezaiela; Izarraitzen ura bidelagun izan dezatela, kloroduna ala gazduna izanda ere... Eta Realak, gure Real maiteak, etengabeko petraltasunetik atera gaitzala. Kirol eskolarena...\*

### IKUSTEKOA!



### ▲ JOSU MANZISIDOR EKAITZ SARALEGIREN 'BOTILERO'

Bilbo eta Amezketa arteko bidea oinez egin zuen abenduaren 6an eta 7an Ekaitz Saralegi amezketarrak. Jokin Altuna pilotariaren botileroa da Saralegi, eta hark lau eta erdiko txapela jantzen bazuen Bizkaiko hiriburutik jaioterraino oinez joango zela agindu zuen. Altunak jantzi zuen txapela, eta agindutakoa bete zuen botileroak, baina ez zuen bidea bakarrik egin: Josu Manzisidor azpeitiarra aritu zen Saralegi amezketarrari laguntzen. Bilbotik Zumarragara egin zuen lehen etapa, eta Zumarragatik Amezketara bigarrena. Argazkian, Saralegi, Altuna eta Manzisidor Eitzako gainean. M. Oiarzabal Otamotz\*

## ABENDUKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



### *Kultura, Gabonetan opari*

**KULTUR BONOIA.** Gabonetan zer oparitu edota zer eskatu, kezka handia izaten da askorentzat. Zer egokiago geure-geurea dena baino? Gure kultura, sortzaileei aukera bat eman eta kulturatik bizitzeko aukera eskaini; gure kulturari etorkizun oparoa izan dezan babesa eman. Hori biltzen du txartel bakarrean Azpeitiko Kultur Bonoak. Azken urteetan moduan, 2018koa ere arrakastatsua izatea espero dut, kultura biz-bizirik dugula erakusteko.



alex silva



### *Eskuzabaltasuna, sarituta*

**ATZEGIKO BOLUNTARIOEI SARIA.** Gipuzkoako Foru Aldundiak Atzegiko boluntarioei eman die aurtengo Boluntariotza Saria. Isil-isilean eta inoren begiradapean egon gabe, egunero beraien bidea egiten dute Atzegiko boluntarioek. Irribarre txiki baten truke beraien denbora eskaintzen dute gure gizartean denentzako lekua sortzeko eta guztiok batera gustura bizi ahal izateko. Inoiz ez dira ahaztu behar horrelako errekonozimenduak, isilean egindako lana agerian jartzeko.



### *Espero gabeko bisitak*

**ELURRA ETA GURDIA.** Aspaldian ikusi gabeko adiskideak gustura jasotzen ditugu etxean. Sorpresa izaten dira, eta garrantzia berezia edota kolore desberdina ematen diote herriari. Hilabete honetan izan dira horrelakoak. Esaterako, elurra izan dugu herriko kaleetan. Mararama egin ondoren estalki zuriz jantzi ditu gureak, aspaldi ikusi ez ge-



nuen neguko paisaia idilikoa gure begien aurrean jarriz. Baina ez da bisitari arrotz bakarra izan, guztion sorpresarako, orgarekin bidaiatzen ari diren lagun batzuk ere izan dira gurean. Herriko kaleetatik igarota alde egin zuten, baina bizitzeko beste modu batzuk eta bidaiatzeko alternatibak badirela erakutsi digute.✳

## INKESTA

Ba al duzu arropa berrerabiltzeko ohiturarik?

 Ainitze Agirrezabala

### IGANTZI UNANUE

11 urte



“Lehengusuen artean arropa pasatzeko ohitura dugu. Erabiltzeko

moduan dagoen arropa botatzea pena da eta garrantzitsua da trukatea, bestela dirutza gastatu beharko lukete gurasoek berria erosten”.

### YUGO FRAGO

51 urte



“Tarteka erosten dut arropa berria, baina ahizparekin edo lagunekin

trukatzeko ohitura handia dut. Azken aldian, gainera, ahizpa asko argaldu da, eta handi geratu zaion arropa mordoska pasatu dit”.

### ANA ETXEBERRIA

43 urte



“12 eta 10 urteko bi umeren ama naiz, eta erabiltzeko

moduan dagoen arropa ezagunei ematen diet. Ganbaran txukunketa egiten dudanean ere, arropa dezente botatzen dut Oldberri ontzira”.

### ARANTXA MENDIOLA

43 urte



“Arropa berria erostea gustuko dugu, eta etxean ditugunak lagunei

eman izan dizkiet. Arropen edukiontzira edo Elkargunera ere eraman izan dut”.\*

## Buruarinak, zenioen?

**I**kasgela batean zaude. Zure aurrean, behatza eta begirada mugikorriaren itsatsita izan ohi duten hogeitaz gazte. Haiek eserita, zu zutik. Haiek *iGeneration* deiturikoak, zu, berriz, *millenniala*. Biak ala biak teknologia artean hezitakoak. Haiek *smartphonea* dute jaiotzetikoa, eta zuk, kasetea.

la denek dute Instagrama, baita zeuk ere. Badaki zu hainbatek beren egunerokotzat dutela *Instastoriesa*, kazetari rola hartu eta “klik” batean bideo labur-laburren bidez gertakari hau eta bestea igotzen dutela sare sozialetara. Beren jarraitzaileentzat bizi direla uste duzu, *likeak* ehizatzen ibiltzen direla norgehiagoka, ea nork izan gehiago. Zuk, zidor zuzenetik bideratzeko asmotan, dena agerian jartzearen arriskuez hitz egin izan diezu, bizitza pertsonalaren zantzurik txikiak ere lau haizetara neurri gabe zabaltzearen ondorioez.

“Buruarinak” diozu zure baitan, haiei begira. Bizitza pribatua publiko egitea leporatzen diezu, gauzak



lierni varela

bi aldiz pentsatu gabe argitaratzea egotzen. Baina, adi! Hara non egin duzun tupust bat-batean. Zure “gazte garaiko” moda zibernetikoaz gogoratu zara. Begira non datorkizun burura ditxosozko Fotolog hitz fosilizatua... Eta ohartzerako hor zaude zure Fotologeko profilean, arakutzen. Hasi zara irakurtzen, irakurtzen eta irakurtzen, eta argazkiak ikusten. “Hau ni al nintzen!?”, diozu, “nola idatziko nuen ba hori! Eta argazki hau? Igotzea bururatzeko ere!”. Adiskide, zure iraganeko nia-rekin topo egin berri duzu, eta bai, zu zeu zara, urte batzuk gaztegea, baina zu zeu.

Argazki bat igo eta eguneroko moduko bat idazten zenuen, hau, hori eta hura egin zenuela esaten, galdetegi pertsonalak erantzunez zure informazioa Interneten eskegitzen zenuen, eta a zer komentarioak idazten zenituen! Den-dena Interneten, bai, Wikipedia bezain publikoa den webgune hartan. Eta oraingo nerabeez “buruarinak” zenioen?\*

galdetzen hasita, sansebastianetako banderaren jaitsieran zenbat taldek parte hartuko dute?  Uztarría

## Belenera

**G**oazen Belenera”, diotsate artzainek elkarri, ikusminez eta zalantzaz, San Lukasen ebanjelioko kontaketa zoragarrian. Gaua iluna da, ardiak ez dituzte berenak, biharamuneko ogirik ez da etxean. Gau minean, halere, izar baten argia edo aingeru baten promesa iruditu zaie. “Ez beldurtu –esan die aingeruak edo barnean daramaten biziminak–. Askatzailea jaiotze Belengo kobatxo batean”. Eta badoaz.

“Goazen Belenera” esan nahi nizuke nik ere Eguberri-atari honetan, nahiz eta egun berriak oraindik urrun dirudien, mundua eguberritzeko argi-txintarik ez zaigun ageri. Belenera. Baina nongo eta noizko Belenera? Belen asko baitaude. Izen horretako hiri, herri edo herrixkak aurki ditzakezu Argentinan, Kolonbian, Uruguain, Brasilen, Portugalen... edo etxeko sarreran.

Eta Israel edo Palestinan, noski, Jerusalemdik beheratzi kilometrorra: 25.000 biztanle inguru ditu, erdiak musulman eta beste erdiak kristau, palestinar errefuxiatuak asko, Israelek eraikitako harresi bihozgabe



joxe arregi

batek hesiturik, sarrerak eta irteerak kontrolaturik, beren lurraldean arrotz, langabezia gehienak. Munduko Belen guztien, gaurko munduko zoritar eta arrakala guztien, irudi latza.

Belen izenak “ogiaren hiri” esan nahi du. Amets ontzailearen izena da. Ogizko, mahaikidegozko, ontasun zoriontsuzko hiriaren izena da. Belen ez da iragana. Ebanjeliok ez dira gertatuaren kronika, gertatu behar lukeenaren profetia baizik. Jesus Nazareten jaiotze baten ere seguruenik, ez Belenen, eta Maria fisikoki birjina izan ez bazen ere eta Jose izan bazen ere, zalantzarik gabe, Jesusen aita, horrek ez dio batere inporta. Ebanjeliok, poemak bezala, bihotza mugitzeko eta esperantza askatzeko idatzi ziren. Ez dute iragana kontatzen, etorkizuna baizik.

Goazen, bada. Naximentuko haurtoaren aurrean –gizadi berriaren irudi–, makur gaitetzen samur eta apal, Maria eta Jose bezala. Egin dezagun amets. Eta ametsak eraginik, eraiki dezagun Belen.\*

HAU HOLAXEENK



SO-REA-SUUUUU-KO-SE-BAS-TIAN...  
MOTELO OSTIA!



# Dikotomiak

**D**ikotomikoak gara. Jaiotzen garenetik ezartzen digute ar edo eme garen, mutil edo neska. Erabakiarazten digute athleticzale edo realzale, kirolari edo "kultureta", zientziak edo letrak. Eraikiarazten dizkigute nahiak, desioak, gustuak; heterosexual edo homosexual, Benito edo Laboa, ezkertiar edo eskuindar, Olentzero edo Errege Magoak...

Eta hartzen dugun erabaki ororen harriak daramatzagu; soinean batzuetan, arrastaka besteetan. Etiketak itsasten ditugu ezagutza jolasen batean nor garen galdetzen badigute

ere izenondoak eskuragarri izan ditzagun, nor garen adierazteko zer ez garen lau haizetara zabaltzeko beharra bagenu bezala. Asmo onez beteta hasiko dugu 2018 bezala izendatu diguten urte berria, eta betiko inertziak harrapatu gabeko egunak zenbatuko ditut iazkoak baino gehiago izango direnaren esperantzara kondenatuta. Gu neurtzen hasi zirenean hasi omen ginen geure burua neurtzen, eta horixe eskatu nahi nieke Olentzerori zein Erregeei: geure buruari aplikatzeko moduko neurketa sistema berri bat.

||||||||||||| **felipe murillo** |||

Erlatibizatzearen aldeko aldarri esanguratsua bat. Zergatiak beharrez zertarakoak eraikiko dituen makinaren bat. Besteen neurketak atzemateko betaurreko bereziago batzuk. Elkarren aurka dauden bi aukeren artean dagoen *continuum*a bistaratuko didan gailuren bat. Hori besterik ez eta hori guztia. Hori guztia eta hori besterik ez.

A! Eta bide batez, Kultur Bonoa ere eskatuko diet. Izan ere, neuk neure buruari buruz egindako definizioak dio, seguruenik, bizikletari baino zuku handiagoa aterako diodala bonoari.\*



# Erotikan Plax!

**H**ainbat sari jaso du Erika Olaizolak Amancay Gaztañagarekin batera zuzendu duen *ZULO* film laburra tarteko. Harekin hitz egin dugu hil honetan.

**Zergatik ZULO?**

Hitzak duen jokoagatik.

**Zertan gozatu duzu gehien?**

Hazia ereiten eta landarea ureztatzen. Lorea usaintzen ari garen honetan ere, gozatzeko ari naiz.

**Zer ikusiko zenuke zulo txiki batetik?**

Beste zulo bat [kar, kar, kar].

**Sortze prozesuetan eraiki eta deseraiki ibiltzen gara.**

**Zer eraiki eta deseraiki behar genuke maitasun kontuetan?**

Eraikitakoa deseraiki, deseraikitakoa eraiki...

**Zer da garrantzitsua talde lanean?**

Denek bat egiten duten modua aurkitzea.


**Inprobisatzea edo jakinek gidoia jarraitzea nahiago?**

Bata edo bestea, orain eta hemen.

**Norekin egingo zenuke film bat?**

||| **ERIKA OLAIZOLA** |||

**Adina.** 28 urte.  
**Herria.** Azpeitia.  
**Bizitokia.** Azpeitia.  
**Lanbidea.** Aktorea.



Ryan Goslingekin [kar, kar, kar].

**Errealitatean orgasmo asko antzezten dira?**

Bakoitza izan dadila bere ekintzen arduradun.

**ZULO maitasunez egindako maitasun istorioa da. Zer egingo duzu maitasunez?**

Modu kontzientean, neure burua

entzun, sentitu eta onartu, maitasunez eta mimoz.

**Azpeitiko zein buruhandirekin maiteminduko zinateke?**

Maskuriarekin ondo moldatzen den edozeinekin [barrez].

**Ezaguna izanda, gehiago ligatzen da?**

Ezaguna? Zeinentzat?

**Zer izan nahi zenuen handitan?**

Arkeologoa edo astronauta.

**Zerk erakartzen zaitu?**

Txokolatzeko coulant beroaren eta mandarina izozkiaren kontrasteak.

**Kontraesan bat?**

Kontraesanik ez dugula esatea.\*

||| **haizea egiguren-edurne mendizabal** (Arremanitzeko kideak) |||

||| **Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:**

Sindikatu Zaharra, 2. solairua

[www.azpeitikoudala.eus/sexu](http://www.azpeitikoudala.eus/sexu) 688897920

Hitzorduak, hilabetea: urtarrilaren 10ean

(16:00-19:00) eta 27an (10:00-13:00).



## ► PENTSATU ETA EGIN.

“Bizitza guztia” darama bizikletan ibiltzen Mamen Etxaniz ‘Kinttela’-k (Azpeitia, 1961). Duela sei urte Tibetera eta Nepalera joan zen bizikletaz bidaiatzera, eta inguruotan ere ibilbide ugari egindakoa da. Aurten “ezer berezirik” egiteko asmorik ez zuen, baina ekainean aurrejubilatuta egin zen, eta, hil berean, ama galdu zuen, “zoritxarrez”. Denbora nahikoa zuela aprobetxatuz, pentsatu zuen: “Zer arraiol!”. Bizikleta hartu eta AEBetako ‘Route 66’ ibilbidea egitera animatu zen, bakar-bakarrik. 3.939 kilometro ditu errepideak, eta sei estatu gurutzatzen ditu: Illinois, Missouri, Texas, Mexiko Berria, Arizona eta Kalifornia.



# Pedalkadak desertuan

AEBetako ‘Route 66’ ibilbide mitikoa egin du Mamen Etxanizek. 35 egunetan, 3.450 kilometro egin ditu bizikletaren gainean. 📌 [Ihintza Elustondo](#) 📍 [Mamen Etxaniz](#)





### ▲ ETXEA GAINEAN.

AEBetara joan aurretik mapak eta ibilbideak prestatu zituen Etxanizek, eta abuztuan proba bat ere egin zuen Landetan (Frantzia) eta Tolosan (Okzitania). Irailaren 27an hasi zuen ibilbidea, bizitzeko behar den guztia bizikletaren gainean hartuta. Hasierako egunetan, kanpin-denda batean egin zuen lo, baina egunak aurrera joan ahala, moteletan ostatu hartzea erabaki zuen. "Egunean zehar hainbeste esfortzu eginda, mereziko dut ba ohean lo egitea!", esaten zion bere buruari Kinttelak.

### ► GASOLINDEGIA GELTOKI.

Ibilbideko kilometro gehienetan basamortua izan du paisaia Etxanizek. Herri gutxi daude inguruetan, baina, tarteka, gasolindegia topatzen zituen, eta geldialdiak egiteko aprobetxatzen zituen horiek. Gasolindegietan jatekoa eta edatekoa erosten zituen, eta aurkitzen bazuen, garagardo bat edateko ere aprobetxatzen zuen unea.





### ▲ EGUNERO, 100 KILOMETRO.

'Route 66' AEBetan asfaltatu zuten aurreneko errepidea izan zen, eta horregatik da hain ezaguna. 1926an zabaldu zuten errepidea, baina 1985ean haren ondoan autobide berria egin zuten, eta ordutik jende gutxi ibiltzen da bide zaharrea. Izatez, 3.939 kilometro ditu bideak, baina 3.450 egin zituen bizikletaz Etxanizek. Izan ere, euriteak tarteko, gainontzeko 500 bat kilometroak autobusean egin zituen. Batez beste, pedalei eragiten 100 kilometro egin zituen egunero.

### ▶ EZUSTEKO ATSEGINA.

Kilometro gehienak bakar-bakarrik egin zituen Kinttelak. Izan ere, udaberrian jende askok egiten du 'Route 66' ibilbidea, baina udazkenean "oso gutxi". Dena den, ezustekorik ere tokatu zitzaion bidean. Mexiko Berrira iristear zela, Jean Coello amerikarrarekin egin zuen topo. Hizketan hasi eta antzeko planak zituztela konturatu ziren, eta, halaxe, bederatzi egun egin zituzten elkarrekin, Flagstaff herrira iritsi arte. "Oso ondo" moldatu ziren elkarrekin, eta Etxanizek dio "babesa" izan zela harekin topo egitea. "Nire amak aingeru bat bidali dit", pentsatu zuen Etxanizek.





## ◀ 'AZPEITIA' CADILLAC AUTOAN.

Texaseko Amarillo herriaren inguruan artelan bitxi bat dago: hain zuzen ere, hamar Cadillac auto daude lurperatuta, belardi baten erdian. Inguruetan ez dago batera kolorerik, baina auto horiek bizia ematen diote inguruari. Bertatik pasatzen den jendeak spray pote bat erosi eta nahi duena margotzen du autoetan, eta Kinttela ere animatu zen bere arrastoa uztera. Zer bururatuko, eta 'Azpeitia' idatzi zuen auto horietako batean. Benetan azpeitiarra da, nolana ere, Etxaniz.



## ▼ AZKENEAN, HELMUGA.

Zer egitera zihoan galdetzean, batek baino gehiagok barre egin zion azpeitiarrari, baina, azkenean, azaroaren tean, iritsi zen helmugara, Santa Monica. "Sekulako poza eta emozioa" sentitu zituen. "Denekin akordatu nintzen, batez ere, nirekin bizikletan ibiltzen direnekin".\*

## ▲ BAKARDADEAN KANTUAN.

Etxaniz gehien harritu duena da bidean zer nolako bakardadea aurkitu duen. Oso jende gutxirekin egin du topo; tarteka, rantxoren bateko baserritarren batekin, agian. Bakarrik egote hori ez zaiola gogorra egin dio, hala ere. "Neure buruarekin oso ondo entretenitzen naiz". Horretarako zer egiten duen galdetuta, kantatzea dela sekretua dio. Bizikletaren eskulekuan bozgorailu txiki bat jarrita kantuan pasatu ditu orduak eta orduak, basamortuan.



# ENEKOITZ ESNAOLA

kazetaria

## “Armagabetzeak korapiloak askatzen hastea ahalbidetu dezake”

‘Luhuso. ETaren armagabetze zibilaren kontakizuna’ liburua idatzi du azpeitiarrak. Uste du aurki irits daitekeela ETaren desegitea. ✍️📺 Julene Frantzesena

**L**iburua aurkeztu eta egun batzuetara etorri zen Uz-tarriaren galderei erantzutera sorterrira Enekoitz Esnaola *Berriako* kazetaria. ETaren armagabetze zibilaz eta horrek utzitako ondorioez luze hitz egin du azpeitiarrak.

**ETaren armagabetze zibilaz liburua egin duzu. Nolatan?**

Armagabetze garaian, *Berrian* informazio ona erabili genuen, eta ikusten genuen kontaktzen ez zen gauza bat bazegoela kontatzeko. Baina une hartan armagabetzea zen garrantzitsuena, euskal hedabide bezala erantzukizuna dugulako eta dena ez delako libre ere. Armagabetzea amaitu eta denbora

batera Bakegileekin hitz egin genuen, eta irailean hasi nintzen liburuarekin. Bi hilabete egin dut, martxa azkartuta; izan ere, Durangoko Azokarako nahi zuten lana Aleka bildumaren argitaratzaileek.

**Azkarraz gain, nolako izan da liburua egiteko prozesua?**

Liburua egitea proposatu zidatenarako buruan nuen zer bloke izan behar zituen lanak. Lau bloketan banatu dut: Luhusoko gauaren kronika, liburua indartsu hasteko eta politika gustatzen ez zaionarentzat ere amu izan daitekeelako; Luhusokoa egitera zer dela-eta iritsi ziren eta 2011n ETak jarduera armatua utzi zuenetik izandako saiakerena

### |||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1970eko irailaren 28a.

|||**Herria.** Azpeitia.

|||**Bizi tokia.** Lezo.

|||**Lanbidea.** Kazetaria.

da bigarren atala, izan izan direlako; Luhuso-Baiona da hirugarren atala, eta kontatu ez dena kontatu dugu; eta laugarren atala egin dugu gogoeta batzuk utzi nahian, beti ere, elkarrizketatuen hitzetan. Elkarrizketak egin ahala baieztatu dut atalak horiek izan zitezkeela. Ate ugari jo dut, eta zortea izan dut ireki egin dizkidatelako. Uste dut inplikaturako alde denak daudela jasota elkarrizketetan.

**Armagabetzeaz arduratu ziren herritarrekin, euskal erakundeetako ordezkarie-**

**kin, Ipar nahiz Hego Euskal Herriko politikariekin, Konponbiderako ETaren ordezkariarekin... hitz egin duzu.**

39 lagunekin hitz egin dut, baina batzuek ez dute nahi izan liburuan beren izena agertzerik. Informazioa pasatu didate horiek ere, eta nik errespetatu egin dut haien nahia. Elkarrizketez gain, liburuan atera ditut argitaratu gabeko planak, dokumentuak, gutunak... Kontatu ez dena kontatu nahi nuen, baina kontatu zitekeena kontatuz. Izan ere, aintzat hartu behar da pertsona batzuk oraindik auzipetuta daudela, auzia instrukzio fasean dagoela, arma kontua izan zela eta



Espainiako Estatu hori dena traba-tu nahian ibili zela. Arduraz jokatu atera da atera dena.

**Armagabetzeaz asko hitz bada ere, gaia sakontasunez lantzea asko kostatu zaizu?**

Jendeak nahi zuen gertatutakoa kontatzea, nahiz eta pare bat lagun-ek kezka zioten ez zela gaiaz hitz egiteko garaia. Azkenean, informazioa eman didate, eta elkarrizketa-

tu ditudan lagun guztiek prestutatsuna izan dute. Informazio berri asko dago liburuan.

**Aieteko bake konferentziatik armagabetzera arteko prozesua kontatu duzu liburuan. Sei urte horietako hariak nola lotu dituzu?**

Kronologikoki egin dut. Aietera iristerako zeharkako konpromiso batzuk zeuden Madrilen eta ETA-

ren artean, nazioarteko bitartekarien bidez lortuak; adostasun batzuk baziren, presoengurukoak nagusiki. Orduko beste puntuetako bat zen armagabetzea aztertzea eta adostea. Norvegiar ziren elkartzekoak, baina Aieteko konferentziaren ostean, PP jarri zen gehiengo osoz Espainiako Gobernuan, eta ez zuen jarrerarik hor sartzeko. Saiatu ziren nazioarteko bitartekariak, baina ez zen posible izan. 2013ko martxoan desegin zen elkarrizketa gunea. Aurretik, 2012ko udazkenean, Frantziarekin hitz egiten ere saiatu zen ETA. Informazio hori guztia lehen eskutik jaso dut, Konponbiderako ETAREN ordezkari David Pla elkarrizketatu baitut, gutun bidez, luze. Harekin ezin izan nuen bildu, kartzelan dagoelako eta denborarik ez zegoelako, baina bidali nizkion galdera guztiak erantzun zituen. Bestelako iturri batzuetatik ere bildu dut informazioa. Aldebiko elkarrizketen fasearen saioa bukatzean, Nazioarteko Egiatzatze Batzordearekin (NEB) hasi zen hizketan ETA. Batzordeak jada egiaztatuta zuen jarduera armatuaren bukaera, eta ETAREN eskariz eta bere konpromisoz hasi zen batzordea armategia zigilatzeke egiaztatzea eginen. NEBeko presidentea Ram Manikalingam zen, eta hari ere egin diot elkarrizketa. Lokarrik plan bat osatu zuen –ez zuen argitaratu, baina guk lortu dugu–, eta haiekin ere egon naiz; Eusko Jaurlaritzak ere plan bat atera zuen, eta Jonan Fernandezekin hitz egin dut; Ipar Euskal Herriko ordezkariak batek saioa egin zuen Parisen legelari batzuekin, horien bidez gobernura iristeko presoez eta armagabetzeaz hitz egiteko, eta bilera haietan parte hartu zuen jendearekin egon naiz; ezker abertzaleak Parisekin egin zuen saio bat, Henri Dunant zentroak sustatuta, eta ezker abertzalekoekin ere hitz egin dut. 2016 hasieran Foro Sozialak armagabetzearen auziari heldu zion, eta, bestetik, Txetx Etxeberri-eta biltzen hasi ziren; ordezkari horiekin denekin ere hitz egin dut. Fran-

## LIBURUAREN FITXA

**Izenburua.** *Luhuso. ETAREN armagabetze zibilaren kontakizuna.*

**Egilea.** Enekoitz Esnaola.

**Bilduma.** Aleka.

**Argitaletxea.** Berria, Jakin fundazioa eta Elkar.

**Orrialde kopurua.** 196.

**Eranskinak.** Kronologia, argazki bilduma, mapa...

**Prezioa.** 16,5 euro.

tziako orduko gobernuaren ondo-ko jendearekin ere bai. Beraz, kronologiaren arabera inplikaturatuta egon den jendeak kontatutakoa azaldu dut, ahal den kasuetan kontrasteak eginda eta beste informazio bat erabilita. ETAK armagabetu nahi zuen, eta baita ezker abertzaleak, euskal gizarteak, euskal instituzioek eta nazioarteak ere. Horixe da kontatzen dena.

**Egoera horretara iritsita, ETAREN armagabetzea zibila izateak zer garrantzia dauka?**

Bake prozesuetan, normalean, eskema klasiko bat jarraitzen da: erakunde armatuak eta tokiko estatuak hitz egiten dute. Hori ez da posible izan hemen, nahiz eta aurretik egin ziren saiakerak –1989an Aljerren, 1999an Suitzan eta 2006-2007an Loiolan eta Genevan–. Estatuaren bide hori itxi egin zen, zeharka ere ezin izan zen aurrera egin; eta, azkenean, gizarte zibilak egin du urratsa. Modu ordenatua eta segurua ez izateko arriskua –atxiloketak izatekoa– hori egon zen, baina badu balio bat: herritarrak izan dira protagonista eta inplikatu egin dira. Hori dela eta, gatazkaren ondorioak konpondu beharra zabaldu egin da, eta ez da elite batzuen esku gelditu. Estatuak ez bade ondoz ondoz hitz egiteko borondatekerik, gaia gizarteratzeko balio dezake armagabetzea zibila izateak. Presoen gaia, adibidez, asko sozializatu da Ipar Euskal Herrian.

**Inork gutxi espero zuen armagabetzea zibila izatea.**

Hala da. Luhusoko gau hartan Txetx Etxeberrik lau txio igo zituen. Lau haietako hirutan argazkiak zeuden, eta argazki horietan 29 hedabide eta kazetari zeuden aipatuta. “Hemen zerbait dago”, esan nuen *Berriakoon* artean. Gauerdian, *Mediabaskek* ETAre eta Luhusokoen arteko gutunak argitaratu zituen, eta orduan jakin zen ETAk 2016ko azaroaren 15eko gutunean desarmatzearen ardura politikoa eta teknikoa gizarte zibilari eman ziola. Horrek ekarri zuen paradigma aldaketa. Presoen gaiarekin ere zer esan du ETAk? Honako hau: “Esan gabe doa ETak ez duela [EPPK] kolektiboaren jarduna gidatzen”. Ez du esan lehen bere kontrolpean zuenik –ez dakit hala zuen–, baina nolabait ja uzten du gai hori gizartearen eta EPPKren esku. Armagabetzearekin pausoa eman zen, eta Luhusokoaren hurrengo egunean, Ipar Euskal Herrian konexio sozial, politiko eta instituzionala gertatu zen. Eta hori gerezina izan da.

### Horrek agerian utzi du Espainia?

Frantziako Polizia Luhuson sartu zenean, oso adierazgarria izan zen poliziek frantsesez ba al zekiten galdetu izana Mixel Berhokoirigoini eta Zein egotea espero zuten han? Horrez gain, galdekatu zuen poliziak Berhokoirigoini esan zion bere arloa jihadismoa zela eta laguntzeko eskatu ziotela. Beraz, alde horretatik badira zantzu arraro batzuk. Bestalde, joan zen martxoaren 8an Irunen zulo bat altxatu zuen Guardia Zibilak, eta inguru hura ondo ezagutzen duen pertsona batek esana da han ez zegoela zolorik, ura pasatzen den leku bat delako eta armak agerian geratuko zirelako, baleude. Espainiako Estatuak ez al du izan borondaterik ETA armagabetzeko? Ez dut esango ez zuenik nahi armagabetzea, baina beti esaten zuen Guardia Zibilak eta Espainiako Poliziak armagabetuko zuela, eta... Ez zuela nahi armagabetu den moduan armagabetzea? Zalantzarik ez dago horretan, armagabetze honek ez zion



Enekoitz Esnaola Erdikalearen eta Elizkalearen arteko kantoian. ■■■J. Frantzesena

bat ere graziaz egingo. Baina iazko urtarril bukaeran-otsail hasieran batetik, eta bestetik, otsailaren 20an Malagan [Espainia] egin dako goi bilkura batean, Frantziak esan zion Espainiari armagabetzeko borondatea zuela, eta desarmatzea egiten uzteko eskatu zion. **Zuk esana da BBCn: “ETArena izan zen erakunde armatua armagabetzeko prest egon zen eta estatua ukatu zen munduko kasu bakarra”.**

Beste batzuek hala esan dutelako esan dut, hala nola Brian Currinek, Jonathan Powellek edo Foro Sozialak. BBCn atera zuten titular hori, eta oihartzuna izan du. Nik adituek esana jaso nuen elkarrizketa hartan.

### Luhusokoaren ostean etorri dena espero al zuen inork?

la inork ez zuen Luhusokoaren

berri. Bost lagun atxilotu zituzten han, baina 21 lagunek parte hartu zuten operatiboan. Dena den, bakoitzak bere rola zuen. Haren ostean, hiru bat hilabete lan handia egin zuten artikulaziorako, eta martxoaren 17an etorri zen Txetx Etxeberriren iragarpena *Le Monde* egunkarian: armagabetzea apirilaren 8an. Martxoaren 15era arte egon ziren Frantziari mezuak bidaltzen lankidetzaren eskeman sar zedin, eta erantzun zehatzik ematen ez zuelako jakinarazi zuten apirilaren 8koa.

### Zalantzak al zeuden?

Data emateaz zalantza handiak zeuden eremu guztietan, eta Bakegileek ere izan zituzten. Izan ere, igerilekura saltatzearen zeuden Bakegileak, beteta zegoen jakin gabe. ETAre erabakia hor zegoen, ezin zuen huts egin, lehen ere

Loiolako elkarrizketen garaian, suetenean zela, Barajasen eginiko atentatuarekin sinesgarritasuna galdu zuelako. Oraingoan ezin zuen bestelakorik egin: ardura emana zion gizarte zibilari. Gauzak asko eta jende askorekin hitz egin da zituzten Bakegileek, baina azken unera arte izan zuten zalantza. Azken batean, gizarte zibilak, herri mugimenduak, behar du aursardia puntu hori, eta Bakegileek izan dute. Adibidez, ikastolaren proiektua nola sortu zen Frankismo garaian? Zer bermerekin? *Egunkaria* nola sortu zen? Zer bermerekin? Eta *Berria*? Eta beste proiektu batzuk?

**Frantziako Gobernuak zergatik aldatu zuen jarrera armagabetzean? Eta ordutik hona? ETak duela sei urte eman zuen bukatutzat jardura armatua, eta kon-**



gainera, Ipar Euskal Herriaren determinazioa ere hor dago: ETA armagabetzeko determinazioa izan du eta subjektu bezala joan da Frantziarekin horretaz hitz egitera. Frantziak bermatuta zuen armagabetearen trukean ezer ez ziotela eskatuko: presoak... Gainera, ETAREN presentziarik gabe egingo zen armagabetzea. Bruno Le Roux Barne ministroari urtarrilean esan zion hori guztia bere alderdiko senatari batek, Bakegileekin egon ostean. Le Rouxek esan zuen armagabetzea egin behar zela, ez zuelako ezer arriskuan jartzen. Armagabetzea egiten utziko zuenik ez zuen esan, baina isileko inplikazio izan zuen, eta lehen aldiz, Espainiari jarraitu gabeko pauso bat eman zuen Frantziak. Hori oso garrantzitsua da orain presoen gaiarekin gauza bere gerta daitekeelako. Bakegileek ETArekin trukaturako lehen gutunean bertan esan zuten bake prozesua blokeatuta zegoela eta prozesuak integrala izan behar duela: hau da, armagabetzea, presoak eta biktimak. Baina, haien arabera, lehenik armagabetzea gauzatu behar zen presoen auzia desblokeatzeko. Blokeatuta zegoen bake prozesuan aurrera egiteko korapilo bat askatu zen armagabetzearekin, beharrezkoa zen, eta beste korapiloak askatzen hastea ahalbidetu dezake.

**Bake prozesuarekin lotutako mugimendu nagusiak Ipar Euskal Herrian ikusi dira. Zer gertatzen da Hego Euskal Herrian?**

Narbarmena da Ipar Euskal Herrian pausoak eman direla. Han ilusio une bat bizi dute, intuzio propioaren aldeko borrorak emaitza batzuk eman dituelako eta baita ar-

magabetzeak ere. Uneotan, ilusio hori falta da Hego Euskal Herrian. Kontuan hartu behar dira ezker abertzalearen ilegalizazio prozesua edota PPren gehiengoa Espainian, eta, besteak beste, horregatik ez da pausorik eman, ez da aurrerapenik egon. Gainera, Eusko Jaurilaritza bakegintzan ez da ausardiaz jokutzen ari. Frustrazioa dago Hego Euskal Herrian, eta bakegintzan une honetan Frantzian eta Ipar Euskal Herrian dago jarrita fokua. Espetxe eremuan Espainia baldintzatzeko bi faktore garrantzitsuak izan daitezke: ETAREN desmobilizazioa –ETAk esana du erabakia hartuko duela bere etorkizunaz– eta EPPK-ko kideak modu publikoan neurriak eskatzen hastea legedia jarraitzen hasteko. Ipar Euskal Herrian inurri lanean ari dira Bakegileak, eta Frantziarekin alde bikotasuna lortu dute, estatuaren aldetik aitortza dago. Hego Euskal Herrian ez da halakorik, jaramonik ez duelako egiten Espainiako Estatuak. Lehentasuna izan behar da Hego Euskal Herria subjektu bezala eratzeari, gatazkaren ondorioak behin betirako buka daitezzen.

**Armagabetzea eginda, presoen egoera konpontzea jarri dute orain mahaiaren gainean. Zein izan behar luke hurrengo pausoak?**

Kolektiboak dio: lehen neurri gisa, urrutietara bukatzea eta preso guztiak Zaballan eta Mont de Marsanen batzea, eta preso gaixoak askatzea. Horiek dira lehentasunak. Eskubideak dira eta pixkanaka bidean aurrera egiteko lehen etapa lirateke neurri horiek.

**ETAren desegitea ere mahai gainean dago?**

Ezker abertzaleak estrategia alda-

“une honetan ipar euskal herrian dago jarrita fokua”

“Armagabetze honek ez zion batere graziarik egingo espainiari”

tzearen ondorioz, 2011n utzi zuen ETAk jarduera armatua. 2013an EPPK-ko kideek legedia erabiltzea erabaki zuten, 2017an barne eztabaidaren ondorioak aurkeztu zituzten; eta ETA armagabetu da, arduraz gizarte zibilari eman ondoren. Azken zazpi urteotan sinesgarriak izan dira ETAREN eta ezker abertzalearen pausoak; ados egon edo ez horiekin, azkar edo makal datozela iruditzen, sinesgarriak izan dira. Bakegintzan ez dut ikusten determinazio bera beste erakunde edo eragile batzuetan. Noiz etorriko den ETAREN desmobilizazioa? Zerbait egongo da datozen hilabeteetan; eztabaidan ari dira militanteak, eta esana du ETAk etorkizunean ez dela eragile politiko izango. Kontuan izan behar da askok arrazoi edo aitzakia gisa egotzi izan dioten zaintza edo tutelazio hori ez dela egongo. Pistak eman ditu ETAk, eta uste dut posible dela 2018ko aurreneko zatian iristea desmobilizazioa; luzatzeak ez du zentzurik. Hala bada, ETA sortu eta 60 urtera desegingo litzateke, bere kabuz. Ziklo historiko baten bukaera izango da.

**Bizikidetzara al litzateke beste pausoa?**

Bizikidetzara eguneroko kontua da.

tuan hartu behar da ETAk, batez ere, Espainiako Estatuan egin dituela atentatuak. Frantziako Estatuan hiru lagun hil ditu: bi guardia zibil Capbretonen eta Nerin gendarmea “ezusteko enfrentamendu” batean. Beraz, datu hori garrantzitsua da. Preso gehienak, berriaz, Hego Euskal Herrikoak dira, eta preso gehienak Espainiako Estatuan daude espetxeratuta. Hori guztia hartu behar da kontuan. Bestalde, Frantzia oso gogor jo du azken urteotan jihadismoak, eta,

OBRA ZUZENDARITZA ETA GREMIOEN KOORDINAZIOA  
AURREKONTUAK ETA OBRA NEURKETAK  
IREKIERA ETA JARDUERA BAIMENAK  
ERAIKINEN IKUSKATZE TEKNIKOA (ITE)

 JON  
ESNAOLA  
ARQUITECTO TÉCNICO  
M: (+34) 647 654 506  
T: (+34) 943 15 7000  
E: info@jonesnaola.es  
www.jonesnaola.es

Ez dakit zer plan egin daitekeen. Mentalitatea aldatu behar da eta minik ez sortu hizkerarekin, keinuekin... Hitzaz ere desarmatu egin behar dela esaten da liburuaren bukaeran, baina ez soilik eragile politiko-sozialek, telebistako edozein mahai-ingurutan eta filmetan ere bai. Exijentzia ez da emankorrena izaten, norberak ez baditu pausoak ematen. Eta urratsak egiteko klima bat sortu behar da. Norabide horretan egiten den dena izango da ongietorria, baina orain presoena da konpondu behar den auzia.

**Aurretik Joxe Takoloren biografia eginga zara; Lagun Onak Mendi Bazkunaren 50. urteurreneko liburua ere bai; baita 'Soka ez da eten' dokumentala ere...**

Egin ditudan lan denei garrantzia bera ematen diet. Niretzat Joxe Takoloren liburua berezia izan zen, eta *Luhuso. ETArein armagabete zibilaren kontakizuna* ere bai.

**Beste libururen bat egingo al zenuke?**

Duela gutxi *Berriara* itzuli naiz lanean, eta uste dut horrelako lanak jende desberdinak egitea ona dela.

**Politika sailean ari zara lanean. Nola aldatu dira hedabideak azken urteotan?**

Mugimendua eta energia positiboa dauden eta bilakaera erakitzailerak egin daitekeen tokietan aritzea gustatzen zait: Uztarría Kultur Koordinakundean eta Kultur Mahaian, Berria.eus-en eta orain politika alorrean. Sare teknologikoei eragin handia izan dute, eta errespetua eta erantzukizuna gisako balioak hankaz gora jarri dituzte. Orain, iritzian asko oinarritzen da jendea, eta ez informazioan. Orain



Esnaolak Gomez Bermudez legelari eta 2006-2007an ETA-Espainiako Gobernua elkarriketetan Madrilen ordezkari izan zena elkarriketatu zuen *Berriarako* ekainaren 27an, Madrilen. ■ E. Esnaola

*edonork* ematen du informazioa, baina ez dakigu egia den edo gezurra den. *Berria* saiatsen gara informazioa ematen, gertaerei garrantzia ematen, eta ez hainbeste adierazpen kazetaritari. Liburuarekin ere informazioa jaso nahi izan dut, eta ez naiz sartu erreprotxeetan, ikuspuntu desberdinak izan diren arren.

**Urteak daramatzazu *Berria* egunkarian lanean. Zein da euskalgintzaren egoera?**

Euskal hedabideen panorama ez da asko aldatu. Hiru krisi dituzte, eta bat historikoa eta propioa da: kontsumitzaile kopuru mugatua dute. Bigarrena orokorra da: ekonomia krisiak eragina izan du salmentan, publizitatean... Eta hirugarrena, teknologiaren bilakaerak gazteengan izan duen eragina da. Berria Taldeak oraindik ere egunkaria behar du bideragarri izateko, baina Prisa *El País* behar duen

bezala. Izan ere, zein hedabide taldek ez du behar egunkari historikohori? Aurrera begira ez dut erraza ikusten egunkarien etorkizuna. Urte batzuk iraun ditzakete eguneroko izaten, baina formula desberdinak probatu beharko dituzte. *Berriak Egunkariak* zituen 11 oinarriekin jarraitzen du lanean, euskaldunentzat egindako egunkaria izateko ahaleginetan dabil; horrek esan nahi du zabalera, nazionala, ez-instituzionala baina ez instituzioen aurkakoa, baterakoa... izan behar duela. Hor gaudenok oso argi izan behar ditugu irizpide horiek, eta kazetari berriei ere hori transmititu behar diegu. Armagabetearen kasuan, adibidez, *Berria* argi ikusten genuen bultzatu egin behar genuela gizarte zibilaren bidea, gurea ere hala delako, herri mugimendutik sortutakoa. Profesional izateaz gain, herri mugimenduko kide ere bagara. Transmisio

hori oso garrantzitsua da, eta garrantzia eman behar zaio bi elementu horien loturari. Egutero egin behar da lan, eta gazteei kontzeptu horiek azaldu behar zaizkie, arrazoituta, baina azken urteetan ez dakit zenbateraino egiten den hori. Euskaldunok, gaurgaurkoz, plan estrategikoak baino gehiago kontzientzia izatea behar dugu.

**Azpeitian Uztarrían, Kultur Mahaian... aritu izan zara urteetan.**

Beti filosofia berarekin, jende askorekin batera: herri mugimenduetan zentralitate bat hartu nahian, zabal jokatzuz, kultura politiko bat ereinez eta proiektuak gauzatuz. Azpeitian esparru sozial guztietan erabakiguneak zabaltzea komenigarria litzateke; ardurak ardura, horizontalitatearen kontzeptua finkatzea ari naiz. Lan munduan ere bai. ✪

 **ostadar optika**  
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK

Jose de Arretxe, 17  
Tel. 943-810654  
AZPEITIA

Itzi Gado, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

 **Ekain**  
ALBAITARI KLINIKA

Itzabal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 85 16 40

Larrietan,  
943 15 16 40

 **AZKOITIA**

ERLOJU  
KONPONKETAK

Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

 **EREGI**  
EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA

golkolea 6, 34. tel: 943 06 06 88  
azpeitia. eregi@eregimot.eregimot



# O, Azpeitia!

**K**omunikabideek ohi duten zer suma lanerako joeraren ondorio izan daiteke –zaharra da zurrumurrua–. Litekeena da gauza, horrelaxe, kontatu duten bezala izatea. Azpeitiko alkatea, Eneko Etxeberria, Gipuzkoako Diputatu Nagusi izateko ezker abertzalearen balizko hautagaietako bat omen da. Zurrumurrua gauzatzeko denbora eta beste gauza asko falta diren arren, irudikatu dut, on Julian Elorzaren ondoren, beste diputatu nagusi azpeitiar bat. Baina batik bat irudikatu dudana, eta gogoratu, diputatu nagusiaren aita izan da, Leopoldo Etxeberria *Anatsan*.

Leopoldo Etxeberria euskaltzale gogotsu eta afanekoa izan zen, euskara batuaren irudi ezagunena Azpeitian. Kultura zen oro mires-ten zuen eta bide horretarako aukera guztietan saiatzen zen. Berarekin tratu sarri samarra izatetik elkarrekin bihurritzera pasatu ginen eta, berriro, 1979ko udal korporazioan elkarrekin zinegotzi izatea fortunatu zitzaigunean, harremana sarritu genuen. Garai haietan, kultur kezka guztien artean Julian Elorza zuen, *don* hitza aurrean jarriz beti, bere gai nagusia. Haren irudia aztertu eta ikertzen ari zen, esango nuke argitaratu ere egin zuela zerbait, baina ezin du zehaztu.

Kontua da, sartu eta tokatu zitzaigun lehenbiziko lanetakoa urte hartako saninazioetako programaren argitarapena izan zela. Kultura zinegotzi legez, berak zuen ardura nagusia, festetakoa zeukana jakintsua baina enteratu zaila baitzen. Sasoi hartan zerbait inprentan ateratzearen balioaren eta garrantziaren neurri garbia gaurko irakurleari emateko gutxi litzateke aldizkari honen ale oso bat. A zer jostailua jarri ziguten gure esku!

Aukera baliatu egin behar zela eta egitarau koloretsu bat baino edukiak zituen aldizkari baten tankera gehiago izan behar zuela, eta euskara ahalik eta ugariena, hutsa gaurko exijentziatarako hala ere, eta zibil samarra egitea erabaki genuen. Orduko irakurketa



|||||||ramon etxezarreta|||

|||Egin genuen sakrilegiorik handiena zezenketei buruzko argazki bakarra sartzea izan zen

ohituretarako testu egile, testu eta euskara gehiegixto sartu genuen, nonbait. Argazkiak ere, komeni baino gehiago, nonbait, zuri-belztean. Sakrilegio bat bezala izan zen azal osoa on Julian Elorzaren argazki zuri-beltz batekin betetzea.

## Sakrilegio handiena

Hala ere egin genuen sakrilegiorik handiena zezenketei buruzko argazki bakarra sartzea izan zen, zezen bat mantso bat gainean zuela. Azpeitiko zezenzalantasun burges txiki garai-kideari hasiera eman zion urte hartan satira gordintzat hartua izan zen. Nik, zinegotzi izan nintzen beste zortzi urteetan, ez nuen aukerarik izan eskurik sartzeko asuntuan eta Leo zenari, ardurarekin jarraitu arren, jefea jarri zioten gauza batzuei ezetz esateko. Geroztik, kontuak ez du hutsik egin, dotore bezain harro, eta alderantziz. O, Azpeitia!\*



**A**tzeratzen eta atzeratzen joan dena gauzatu egingo da urte berriarekin batera Azpeitian. Hondakinak jasotzeko sistema berria ezartzeko prozeduran azken urratsak eginda, Udalak aurreikusitako azken epeak betetzen badira, otsailean herritar guztien hondakinak jasoko dituzte jada sistema berriaren pean. Horrela, etxebizitza bakoitzak aurrez izendatuta izango duen edukiontzi guneko ontzietan soilik bota ahal izango dituzte herritarrek errefusa eta hondakin organikoak, horretarako jasoko duten txipdun txartela erabilita, nahi duten egunetan eta orduetan; papera, ontzi arinak eta gaineko hondakinak, aldiz, herriko edozein gunetan bota ahal izango dira, hondakin mota bakoitzari dagokion ontzietan, beti ere.

Aurreko agintaldian, 2013ko maiatzeko udalbatzarrean, aho batez onartu zuten EH Bilduk, EAJk eta Hamaikabatek ordura arteko edukiontzi bidezko bilketan oinarrituta baina kontrolpean egingo zen sistema berria diseinatzea eta ezartzea, "ahalik eta birziklatze tasa handiena" lortzeko helburuarekin; Gipuzkoan pil-pilean zen hondakinak biltzeko sistemen gaineko eztabaida, atez atekoa zela eta ez zela. Udalak eskatuta, ENT enpresak azterketa teknikoa egin zuen urte berean, Azpeitian %70eko birziklatze tasara iristeko egokienak izan zitezkeen sistemak proposatzeko. Hiru eredu jarri zituzten mahai gainean azterketa haren ondorioz, eta gauza bat zuten komunean: errefusaren eta hondakin



Herritar bat zabor poltsa errefusaren gaur egungo edukiontzi batean sartzen. Laster, irekitzeko txartela eskatuko

# Txip aldaketa dator

Hondakinak biltzeko sistema berriarekin dator Azpeitira 2018a. Hil honetan materiala banatuta, otsailean indarrean izango da. 📧📷 Mailo Oiarzabal



...tuko duten edukiontzi berriak jarriko dituzte. ||| M. O.

organikoen bilketa modu kontrolatuan egitea. 2014ko irailean, sistema berria izango zenaren proposamena aurkeztu zuen Udal Gobernuak, edukiontzi komunitarioetan oinarritutakoa eta errefusa ateratzeko egunak mugatzen zituena, besteak beste.

2014ko proposamena ez zuten gauzatu, baina hartan oinarritutako beste bat, orain martxan jarriko dutena, onartu zuen udalbatzarrek 2016ko uztailean; aho batez, orduan ere, EH Bilduren eta EAJren oniritziarekin. 2017ko urtarrilerako indarrean egongo zela esan zuten orduan, baina beste urte bat luzatu da prozesua.

### %30 gehiago birziklatzeko

“Aldaketaren arrazoa da herrian zaborrak era egoki batean jasotzeko sistema bat ezartzea.

Era egokian esaten denean da helburu batekin, eta helburua da hondakinen %70 gaika sailkatuta jasotzea”, azaldu du Udalean zinegotzi eta Urola Erdiko Mankomunitatearen presidente den Aitor Bereziartuak. Horrek esan nahi du Azpeitiko egungo birziklatze tasa %30 igotzea espero dutela sistema berriarekin, azken urteetan %40aren bueltan baitago herrian sailkatuta jasotzen den zaborraren kopurua. “Azken urteetan Gipuzkoan sistema desberdinak probatu dira: atez atekoa, edukiontziak txipik gabe, edukiontziak txiparekin, ontzi txikiak, handiak... Azken bost-sei urteetan egon diren esperientziak ikusita, txipdun edukiontzien hautua egin dugu, batez ere ikusita inguruko mankomunitateetan zer sistemek eduki duten modu honetako arrakasta”, gaineratu du Bereziartuak, %70eko tasaz ari dela.

Orain arte, aukerakoa izan da Azpeitian hondakin organikoak sailkatzea; sistema berriarekin, “bultzatuko da bakoitza gaika egoki biltzea”, dio zinegotziak. Hori horrela izan dadin, eta ezarritako birziklatze helburuetara iritsi ahal izateko, kontrol sistemak eskutik ekarriko ditu bilketa sistema berriak. Hori ere azpimarratu nahi du Bereziartuak: “Txipdun sistemak berarekin dauka lotuta hezitzaile edo begirale batzuek kontrola eramatearena. Ez da bakarrik errefusaren eta organikoaren edukiontzien tapa irekitzeko txip bat daukatzula, baizik eta ibiliko direla pare bat pertsona ordu batzuetan, egunean zehar, edukiontzien guneak nola dauden gainbegiratzeko”. Hezitzaileek gune jakin batean zaborra ez dela ondo sailkatzen ikusiz gero, jarraipen bat egingo dute, “txipen irakurketekin, zaborrak topatzen dituzten egoerarekin... Ikusiko dute zein den arrazoa leku horretan gaizki egitearena, eta neurriak hartuko dira, zuzentzeko”.

### Sentsibilizazio kanpaina

Sistema berria ezartzeko prozedura mailakatu ari dira egiten, sistema aldaketarekin batera jarriko dituzten edukiontzi berriak jasotzen doazen heinean, neurri batean.

Horrela, landaguneetakoak eta “ekoizle handiak” –merkataritzak, ostalaritzak eta soziedadek sartzeko dira hor– dira sistema berria antzemango duten aurrenak. “Bi sektore horien bilketa abenduan jarri nahi genuen martxan, baina azkenean pixka bat atzeratu zaigu, edukiontziak jasotzeko epea astebeteko luzatu zaigulako. Urtarrilerako martxan egotea espero”, dio Bereziartuak. Landaguneetan ez dute organikoarentzako edukion-

### ||| DATUAK |||||

**%40** inguru. Azpeitian botatzen den zaborren erdia baino gutxiago sailkatzen da modu egokian gaur egun.

**2** edukiontzi txiparekin. Errefusaren eta organikoaren edukiontziak irekitzeko beharko da txipdun giltza. Gainerakoak, irekita egongo dira, orain arte bezala.

### ||| INDUSTRIA |||||

#### AZKEN SEKTOREA.


**Mankomunitate osoan.** Industriari ere eragingo dio hondakinen bilketa sistema berriak. Otsailean banatuko zaizkie behar dituzten ontziak sektore horretako enpresei, “eta hilabeteko epean dena jasotzen hasi”. Gainera, industriari dagokion aldaketa ez da Azpeitira mugatuko, Urola Erdiko Mankomunitateko kide diren udalerririk guztiei eragingo die.

**Atez ate.** Azpeitiko ekoizle handien kasuan bezala, industriako hondakinak ere atez ate jasoko dituzte. “Orain arte, oso kasu partikular batzuetan bakarrik egiten zen horrela, ez zegoen sistematizatuta”.

tzirik jarriko, auzokonpostaren bidez kudeatuko dute. Ekoizle handien multzokoei, berriz, atez ate jasoko dizkiete hondakinak; horretarako ontziak banatuko zaizkie, bakoitzak dituen espazio muga eta gainerako beharrei egokitutakoak.

“Herriguneetan”, hau da, Azpeitiko kalean, Sanjuandegin eta Urrestillan, otsailarekin iritsi beharko litzateke sistema berriaren ezarpena. Udazkeneko bilera irekien ondoren, etxepe bakoitzari errefusarentzat eta organikoarentzat zein gune dagokion zehaztuta, materiala banatzeko garaia iritsiko da “Erregeen ondoren”. Sentsibilizazio kanpaina baten barruan banatu nahi dituzte bai txipdun txartelak, bai organikoarentzako etxerako ontziak; “behar izanez gero”, azken horiek. Erdigunean, Sanjuandegin eta Urrestillan jarriko dituzte informaziorako eta materiala banatzeko gune finkoak. “Despistatuta ibiliko den jendea egongo dela kontuan hartuta, kanpainatik aparte beste leku batzuk ere jarriko ditugu txartelak jaso ahal izateko”, argitu du Bereziartuak. Gailu berriei, txip aldaketa etorri beharko gero.✳

# Irudiak eta hitzak, argitara

Irudhitzen lehiaketaren bigarren edizioako irudiekin eta hitzekin erakusketa jarriko du Uztarriak urtarrilaren 23tik otsailaren 6ra, Sanagustin kulturgunean. Sari banaketa ere egingo du.  J. Frantzesena

**U**rtea bukatzerako jarri zuen Uztarria Komunikazio Taldeak martxan Irudhitzen lehiaketaren bigarren edizioa. Lehiaketaren gaiak Lurra, Ura, Haizea eta Sua izan dira, eta hainbat lagunek parte hartu dute irudien zein testuen bi azpiataletan: 67k argazkienean eta 40k testuenean.

Sariketara aurkeztu zituzten argazki guztietatik Alberto Belokik ateratakoa nabarmendu du Juan Mari Ibarzabalek, Gorka Arregik eta Valen Garciak osatutako epaimahaiak. Horrenbestez, 150 euroko diru saria jasoko du Belokik erakusketa zabaltzean. Haren irudiez gain, ordea, honako herritar hauek izango dira ikusgai 2018ko egutegian: Iñigo Dominguez, Iñigo Olarte, Juan Carlos del Pozo, Javier Bastida, Iñaki Aranburu eta Jon Aizpuru.

Irudi horiei hitzak jarri dizkieten herritarrak ere hainbat izan dira, eta Xabier Gantzarainek, Alaitz Olaizolak eta Miren Gorrotxategik osatutako epaimahaiak hala erabakita, Irati Aranguren azpeitiarrak irabazi du hitzen lehiaketa; Arangurenek ere 150 euroko diru saria jasoko du erakusketa irekitzean. Gainera, egutegiko beste 11 irudiei honako egile hauen testuek lagunduko diete: Jon Gurrutxaga, Ihintza Elustondo, Ion Aramendi, Peru Aiartza, Maialen Etxaniz, Mar-

## III DATUAK

- III Zer. Irudhitzen lehiaketaren erakusketa.
- III Eguna. Urtarrilaren 23tik otsailaren 6ra.
- III Tokiak. Sanagustin kulturgunea.
- III Antolatzailea. Uztarria Komunikazio Taldea.

kel Urrutikoetxea eta Amaia San Vicente.

## Egutegia bazkideentzat

Uztarriak datozen egunetan banatuko dizkie bazkideei Irudhitzen lehiaketarekin osatutako 2018ko egutegiak. Gainera, Uztarriaren egoitzan ere erosi ahal izango dira, bost euroren trukean. Erakusketa, berriz, urtarrilaren 23tik otsailaren 6ra izango da ikusgai, Sanagustin kulturgunean.\*

## III ESKOLA ANTZERKIA

**67** argazki jaso ditu Uztarriak aurtengo lehiaketan.

**40** testu bildu ditu guztira.\*



Iazko Irudhitzen erakusketako irudia. III Uztarria

## III BESTERIK

**1** Armagabetze osteko urratsez, hitzaldia

'ETAren armagabetzearen ondoren, presoekin zer?' solasaldia, Enekoitz Esnaola kazetariaren eta Anaiz Funosas Bake Bideaneko kidearen eskutik.

III Eguna. Urtarrilak 10 (asteazkena). III Ordua. 19:00.

III Tokia. Sanagustin.

III Antolatzailea. Sare.

**2** Nogen eta Anita Parker, zuzenean

Sarrera sei euro ordaindu behar da, eta kulturgunean edo Kulturaz webgunean eros daiteke.

III Eguna. Urtarrilak 13 (zapata). III Ordua. 23:00 III Tokia.

Sanagustin. III Antolatzailea.

Kulturaz kooperatiba.

**3** Dantzarako aukera

Salsa, bachata, kizomba eta txata-txa doinuez gozatzeko aukera izango da Sanagustin kulturgunean.

III Eguna. Urtarrilak 26 (ostirala).

III Ordua. 22:30.\*

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.eus/agenda](http://uztarria.eus/agenda)

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK\*

**URBISTONDO MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Umut.: 943 81 57 81

Zure autoak behar duen edozeintarako!

**AIZPURU AUTOAK**

PREMIUM CLASSE

Tel. 943 81 33 89 [aizpuru@aizpuru.net](mailto:aizpuru@aizpuru.net)  
 Fax. 943 81 33 84 [www.aizpuru.net](http://www.aizpuru.net) Arreta 17. 20730 AZPEITIA



**IRAURGI**  
ikastetxea

# Ilusioz etorkizuna eraikitzen!

Ate irekiak

**BETHARRAMEKO ERAIKIN BERRIAN**

Urtarrilaren 13an, goizeko 10:30ean

zatoz gu  
ezagutzera

[www.iraurgi.eus](http://www.iraurgi.eus)



eguneroko informazioa sarean



**ALDIZKARIA**

**UZTARRIA.EUS**

**ZOZKETAK,**

**BESTELAKO PRODUKTUAK**

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**

urtean 30 euro  
ordainduta

943 15 03 58

||| **HITZ GEZIDUNAK** ||||||||||||

	Zizela	▼	Hesola	▼	Tiro egilea	▼	Ibarrangelu-ko hondartza	▼	Ergelak	
	Aldaketa biologikoak		Ozeaniako uhartedia		Azkena eta lehena		Plama			
	▶		▼		▼		▼			▼
	Lotura	▶								
Inudeak	▼	Lasaitasun	▶	▼	Ahariaren eme	▶				
Protuko langileak		Izena			Bokala					
▶		▼			▼					
Gaiztoa	▶				Kasik	▶		Bokala	▶	
Deitura					Dozena erdi			Toka, dut		
▶					Zopa	▶	▼	▼		
					Egoskin mota					
Masuria	▶		Karta joko	▶			Toka, du	▶		
Ugaztun handi			Bokalik gabeko lekua				Euskal fonema			
▶			▼		Itxura	▶	▼		Bokal mehea	
					Kontso-nantea					
Katilu txikia	▶				▼					
						Puska	▶			

 **Egilea:**  
**Luma**

\* Kazetari azpeitiarra

||| **SUDOKUA** ||||||||||||

			1	8		2	4		
	4		9	5		7			
6				4	3				
1	3					9			
4									1
		6					7	4	
			6	9					5
		3		1	4		9		
	6	9		7	8				



*Il Partigiano*

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

### |||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Urtarrilak 22 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoaren irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



### |||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||

**1** BAKARRA DAGO


**2** EZ ZAITEZ

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

### |||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

I	T	V	Z	•	V	R	V	K	I	K	•	
•	A	E	T	I	E	•	Z	T	R	A	H	
K	I	D	•	E	T	U	T	•	A	M	•	
A	D	A	L	A	S	•	A	I	A	R	A	G
U	•	A	I	•	A	L	A	T	I	Z	•	
K	A	R	I	A	K	E	T	A	K	A	Z	
I	D	A	R	•	A	K	E	•	B	A	H	•
A	I	R	R	A	K	O	L	•				
K	A	R	I	O	A	K	U	T	A	Z	A	M
•	L	•	T	•	T	•	Z	•				

SUDOKUA

2	1	7	8	4	1	2	6	9	3	7	8	4	1	2
8	2	3	5	1	4	6	9	7	7	7	7	7	7	7
7	1	4	6	9	2	8	3	5	5	5	5	5	5	5
9	5	6	8	2	1	3	7	4	4	4	4	4	4	4
4	8	2	7	3	9	5	6	1	1	1	1	1	1	1
1	3	7	4	6	5	9	2	8	8	8	8	8	8	8
6	7	8	2	4	3	1	5	9	9	9	9	9	9	9
2	4	1	9	5	6	7	8	3	3	3	3	3	3	3
3	9	5	1	8	7	2	4	6	6	6	6	6	6	6

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

- 1** Maialen
- 2** Alpinista

### |||UZTARRIAREN ABENDUKO LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Aloña Etxezarreta Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 200. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.



**Urdalazplikoak, hestebeteak eta gaztak**

Etxeko berezitasuna:  
**Ezkur urdalazpliko Iberikoa**

Eñaut: 656 79 14 19  
Oier: 618 24 01 73  
kutxillo@gmail.com  
Damazo Azkue 6



## BIDEOA



## ▲ LIZASOTARRAK, PUNTUKA.

Xebastian Lizasok jantzi zion Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapeldun Maialen Lujanbiori txapela joan zen abenduaren 17an, BEC-en. "Ohore" hori izaterik espero ez bazuen ere, "gustura" zen bertsolaria finalaren atarian. Finalean txapela janzteko gonbidapena tarteko, Xebastian eta Beñat aita- semeak puntutan jarri zituzten Uztarria Komunikazio Taldeak, 'Urola Kostako Hitzak' -k eta Kulturaz kooperatibak. Bertsotarako sena duen familia da Lizasotarrena: Joxe Lizasoren bidea hartu zuen gaztetan Xebastianek, eta haren bidea segitzen du egun bere seme Beñatek. Finala baino pare bat egun lehenago, parez pare jarri ziren Xebastian eta Beñat aita- semeak; batek galdetu eta besteak erantzun, puntuka aritu ziren. Finala, bertsolaritza, bere ibilbidea eta Joxe Lizaso zenaz aritu ziren solasean aita- semeak, patxadaz, Soreasuko Dinamo sormen gunean. Bideoa Uztarria.eus-en edo komunikazio taldearen Youtubeko kanalean ikus daiteke. Lehen bi egunetan 500dik gora ikustaldi izan zituen Azpeitiko hedabideek eta Kulturazek elkarlanean egindako ikus-entzunezkoak.

## EFEMERIDEAK

1830

## Sukalderako egur faltan.

Herriko behartsuak sukalderako egur gabe zeudela-eta elizgizonei, komentuei eta herritar bereziei laguntza eskatzea erabaki zuten agintariek.

1957

## Diru-laguntza Accion

## Catolica taldeari.

Mila pezetako laguntza eman zion Azpeitiko Udalak Accion Catolica gaztedi taldeari, San Sebastian egunaren bezperan -lehen hurren danborradan- desfilea antolatu zutelako..

2002

## Uztarria.com, martxan.

Duela hamasei urte, urtarrilaren 1 ean jarri zuen Uztarria Kultur Koordinakundeak [www.uztarria.com](http://www.uztarria.com) ataria martxan.

📌 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea. ✳

KIMU BAT  
GARDEN

KIMU BAT 25 urte  
Urrestila bidea. Azpeitia  
943 15 00 85



# Erronka

**H**iztegiak dioenez, helburua edo burutzeko zaila den ahalegina da erronka. Norberarentzat estimulu eta desafio bat dela dio, eta urte berri honeratako jarria dut nik erronka: elikadura burujabetza.

Bertako eta garaiko produktuekin elikadura oreka-tu, osasuntsu eta osoa eramango dut. Gainera, sare sozialen bidez, bertako eta garaiko produktuak protagonista diren otorduak aurkeztuko eta zabalduko ditut. Gure sustraiera jo eta bertako eta garaiko produktuekin osatutako plater gozo eta erakargarriak kontsumitu eta bultzatuko ditut. Proposatuko dudan produktua bertako osagaiez egina izango da beti.

Bertako ekoizleak eta saltoki txikiak indartzen laguntzeko aukera dugu, eta horiek egiten duten lanari merezi duen izena eta balioa aitortuko diegu. Zentzuz sukaldatzen duen herritar kopurua haziz gero, herritarren osasunean ere nabarmenduko litzateke emaitza. Garaiko elikagaiak kontsumitzeak menu nahikoa desberdina izateko aukera ematen digu; dieta anitza izateko eta zaporeak txandatzeko aukera dugu. Elikadura osasuntsua eguneroko bizitzan txertatu behar dugu. Familia, eskola eta herria nutrizio heziketaren eremu naturalak dira. Hez ditzagun geure umeak ere, gure betebeharra berain eskubidea baita.

Orain, nik jartzen dizuet erronka. Animatuko zarete zuek ere?\*



aitziber aizpuru

# IKER GOIKOETXEA paisajista



### 1. Zer da zure egitekoa?

Parkeak eta lorategiak landare bidez egituratzea.

### 2. A zer biribilgune festa herrian!

Gure erakuslehoak dira.

### 3. Diseinatuko zenuke...

Ekaingo erreplikarako sarbidea.

### 4. Arreta deitu dizu...

Frantziako Chaumont gazteluaren 40 lorategiek.

### 5. Diseinatu duzun proiektu gustukoena?

Ekoguneko baratze eskola.

### 6. Zenbatero aldatzen duzue diseinua?

Diseinua egoki planteatuz

gero, balioa irabazten doa eta betirako espazioa da.

### 7. Zer dago modan?

Baratze kultura.

### 8. Lorezainaren eta paisajistaren arteko muga non dago?

Eskutik doaz bi arloak.\*

Ainitze Agirrezabala

**Xabier** magoak

**Pinturak eta Parket Laminatuak**

Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermagoak.com

**IRENE ALTUNA** LOIOLANDA

Loiola-Bide, 26 Tel: 943 81 51 87  
www.ialtunadocenda.com

**Alar** merleria

Loiolako Iazulo Hiribidea, 9  
Tel: 688 81 87 78

**ORDULARI**

Jose de Arriba, 10  
Tel: 943 81 52 44  
20730 AZPEITIA

**uba** SERVICIOS

Ahozkularitza  
Tasaketa  
Jokorata  
Luzapedia

Gestioari jarraitu

Finkak administrazioak  
Gestio inmobiliarioak

Tel: 943 151 226 Fax: 943 152 226  
Euzkoan kalera, 18 - www.ubaindustria.com

**KIRURI**

**JATETXEA**

Loiola hiribidea, 24

**LOIOLA - AZPEITIA**

Tlfnoa.: 943 81 55 88  
Faxa.: 943 15 03 62

**adi** AJUTE ETA OSASUN ERDIA ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak (haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30 (helduak) 19:00 - 20:30

Talia 18:30 - 20:00

Jose Arribas Kalea, 2  
943 81 28 38  
www.adiadon.com  
Marraskia eta eskulanak

# 5 mende, 11 bizipen

500 urte beteko ditu sokamuturrak aurten. Etxe Zuri ondoko ukuilutik aterako dute zezena, ohitura berreskuratuz. 📝📍 Olaia Iraola

**A**urtengoa urte esanguratsua izango da sokamuturzaleentzat; izan ere, 500 urte dira herriaren sokamuturra lehen aldiz egin zela. 1518koa da sokamuturraren lehenengo idatzizko konstantzia, Imanol Elias historialariak Azpeitiko Udal Artxibategian aurkitutakoa. Zezen Beltz Elkarateak, lehengo eta gaurko sokamutilek, Argazki Elkarateak, Udal Musika Bandak, Azpeitiko Udalak eta sokamuturzaleek herri batzordea osatu dute, bosgarren mendeurrena ospatzeko.

Iñaki Urkiak (Azpeitia, 1950) eta Juan Joxe Azpeitiak (Azpeitia, 1950) gogoan dituzte sokamutuil aritu ziren lehen urteak: "Garai ederrak ziren, momentu ahaztezinak bizi izan ditugu". Urkia 1971ko Astearte Karnabalean irten zen sokamuturrean lehen aldiz. "Juan Mari Gurrutxaga Txokolok ezin zuen irten eta aukera horrek bai edo bai nirea izan behar zuela pentsatu nuen, ezerk ezin zidala kendu", azaldu du. Garai hartan, 21 urte zituen Urkiak, eta soldadutza egiten zegoen garai hartan. Komandanteari baimena eskatu eta eman egin zion: "Baina zezenak ez zaitzala harrapatu" esan zidan". Zazpi urtean zehar, urtez urte irten zen zezenean. "Behin ezkondukoan, uztea erabaki nuen".

Azpeitia, berriz, lau urte beranduago hasi zen sokan ateratzen; 1975ean, hain zuzen ere. "Fernando Bereziartua *Pikuak* lanean ari zela min hartu zuen, eta haren orde z sokan neuk irteteko esan zidan. Ilusio handia egin zidan aukera hori niri emateak". Handik sei urtera, gazteak atzetik zetozela eta, haiei aukera ematea eta sokamuturra uztea erabaki zuen Azpeitiak.

## 'Botijo' gogoan

Biak ala biak *Botijo* zezenaren garaikoak dira. Zezen mitikoa bihurtu zen Azpeitiko sokamuturrean; izan ere, hamahiru urtean segidan ekarri zuten herrira. 19 urte egin zituenean, ekartzeari utzi zioten.

Gogoan du Urkiak zezen hura sokamuturrean lehen aldiz atera zuten eguna: "San Sebastian eguna zen, lehenen atera zuten zezena ukuilura erretiratu behar izan zuten, adarra hautsi baitzitzaien. Bigarrena ere erretiratu egin zuten. Hirugarrena *Botijo* izan zen", azaldu du. "Esan beharra dago, hasieran baldar samarra zela eta ertz guztiak jotzen zituela, baina, urtez urte, joan zen herriko kaleak ezagutzen", adierazi du Azpeitiak. Izan ere, izkina askotan katigatzen zela diote. "Urteak joan,



Urkia, Arrieta eta Azpeitia zezena aterako duten garajea

urteak etorri, azpeitiarrentzat zerbait berezia bihurtu zen *Botijo*".

## Ukuiluan, etxean bezala

Garai batean, Etxe Zurineko Lurdes Arruti (Azpeitia, 1959) eta bere familiaren ukuilutik irten zuten zezenek; handik ateratzen zituzten eta Erdikalean gora abiatzen ziren. Ondoren, herriko ukuilu batzuetan aldatzen zituzten; esaterako, astotegian eta Goiko Errotan. 1980tik Erdikale barrenean jartzen duten kamioitik ateratzen dute sokamuturreko lehen zezena; aurten, ordea, usadio zahar hura berreskuratuko dute; izan ere, urtarrilaren 21ean, igande arratsaldean, Etxe Zuri ondoko ukuilutik aterako dute berriz lehen zezena.

Arrutik ondo gogoratzen ditu ukuilutik ateratzen zituzten zezen haiek: "Ikaragarritzko ikusmira egoten zen Etxe Zurineko ukuiluan, jende asko etortzen zen zezenak ikustera: haurrak, gazteak, helduak... Denak etortzen ziren, eta izugarrizko jende-ilarak egiten ziren ber-



ren aurrean. || Olaia Iraola

tan". Hark azaldu duenez, zezena irten aurretik animalia hori ukitzera ere jende asko gerturazten zen. "Garai haietako oroitzapen onak ditut, jendea gustura ikusten baikeuen".

Urtero-urtero Arrutiren osaba Joxe Mari Arrieta apaizak ematen zion zezenari hasierako pasea: "Meza amaitu eta justu-justu iritsi ohi zen". Arrutik jakinarazi duenez, oraindik arraroa egiten zaio zezena haien ukuilutik ez irtetea, eta garai bateko giro hori faltan sumatzen du. "Baina ari naiz pixkanaka-pixkanaka ohitzen".

Lehen, gaur egun baino zezen gutxiago ekartzen zituzten, joan-etorrian ez ibiltzearren. Gainera, Saka ganadutegiko arduraduna Etxe Zurinekoen etxean lo egindakoa dela adierazi du Arrutik: "Noiz edo noiz egun bat lehenago etorri izan ziren".

### "Erraztasun gehiago"

Ibilbidea aldatzeaz gain, beste hainbat aldaketa ere izan ditu sokamuturrak, Azpeitiaren eta

Urkiaren arabera. "Egun, goizetan, sokamutil batzuk irteten dira eta arratsaldean beste batzuk. Guk, laupabost sokamutilek, tokatzen ziren egun guztietan irteten genuen", azaldu du Azpeitiak. "Leher eginda amaitzen genuen", gehitu du Urkiak.

Duela urte batzuk arte, mauka motzean irteten ziren sokamutilak, eta Urkiak-eta azaldu dutenez, beren dirutik ordaintzen zuten arropa. "Nire aita garai hartan zinegotzia zen, eta eguraldi txarra zegoen batean galdetu nion ea anorak batzuentzat-edo dirurik ba al zegoen. Ezta pezetarik ere ez zutela erantzun zidan", azaldu du.

Hala ere, bada garai hartan Azpeitia gehiagoko mintu zuen zerbait. Astelehen Karnabal batean zezenen irteteagatik lanean zigorru egin zuten. "Zigorrik txarrena jarri zidaten: hiru eguneko soldata kendu zidaten. Hala ere, denboran atzera eginez gero, gauza bera egingo nukeen".

Gaur egun, lehen aldean, sokamutilen tal-



1. Etxe Zuri ondoko ukuilua.
2. Zezena Etxe Zuri ondoan.
3. Sokamuturreko irudi zaharra.



dea handiagoa da, eta bi sokamutil ohiek azaldu dutenez, txandak egitea "errazagoa" da. Sokamuturrak arabera, "egun erraztasun gehiago dituzte sokamutilek", baina aitortu dutenez, oso ongi iruditzen zaie erraztasun horiek ematea.

### "Ez dago kentzerik"

Argi dute Arrutik, Azpeitiak eta Urkiak herriko festak zezenik gabe ez liratekeela berdina izango. Urkiaren arabera, herriko festak sokamuturrik gabe ez dira ezer: "Zezena ez dago festetako egutegietatik kentzerik. Azpeitiko zezen-plaza ez balitz betekoa edota herritarrek ez balira horrelako ekitaldietara joaten, kentzea ulertuko nuke, baina obligazioz ezin da kendu, zaletasun handia dago-eta Azpeitian".

Urkia ados dago Azpeitiarekin: "Gogoan dut behin ez zela sokamuturrik egon, eta kaleetan barrena inor ere ez zen ikusten. Ezin da sokamuturra bezalako ekitaldi bat kendu, herritarrek eskatzen duten zerbait da eta".\*

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurugiro Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

## FARMAZIAK (URTARRILA)

1-3-10-16-26-31  
Jacome (Azpeitia).  
943080258

5-7-12-18-20-21-23-30  
Alberdi (Azpeitia).  
943 815974

2-8-15-22-27-28  
Aranburu (Azpeitia).  
943811350

6-11-17-24-29  
Beristain (Azpeitia).  
943811949

4-9-13-14-19-25  
Arrieta (Azpeitia).  
943811274

GAUEZ, URTE OSOAN  
Alberdi (Azpeitia).  
943 815974

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Urtarrilarn 3in izango  
dute hitzordua, 17:00etatik  
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

### BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



### ▲ TAPOIAK JASOTZEKO.

Plastikozko tapoia jasotzeko hiru edukiontzi jarri ditu herrian Elkartasuna eta Itxaropena elkarteak. Igerilekuan, liburutegian eta Sanagustinpean (argazkian) daude edukiontziak.

### ||| GARRAIOA |||

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:  
[www.uztarria.eus/azpeitia/](http://www.uztarria.eus/azpeitia/)  
autobusak

# BEATRIZ ODRIOZOLA

Gozogilea

“Nire izebaren ondoan ikasi nuen postreak egiten”

Etxekoentzako gozoak egiten hasi zen Beatriz Odrizola, eta, egun, enkarguz egiten ditu jendearentzat. 📌 **Ihintza Elustondo**

**I**storio triste bat tarteko hasi zinen postreak egiten...

Gabonetan familia handia elkartzen gara, eta zereginak denon artean banatzen ditugu. Nire izebak postreak egiten zituen, goxo-goxoak, eta nik bere ondoan ikasi nuen horiek egiten. Baina duela bi urte, gaixotu egin zen izeba, eta ez zen gai Gabonetarako postreak egiteko. Orduan, nik egin nituen, eta *bikain* nota jarri zidaten familiakoek. Zoritxarrez, izeba hil egin zen Gabon horietan, eta nik hartu dut postreak egiteko ardura.

**Ordutik, postre ugari egin dituzu.**

Gabon haietan, familiako argazkiak sare sozialetara igo nituen, tartean, postreenak, eta jendea hasi zitzaidan esaten: “Niri ere egin!”. Urte horretan bertan hasi nintzen jendeari postreak enkarguz egiten: aurrena, lagunei; gero, lagunen lagunei... Ahoz aho zabaltzen joan da, eta Instagram eta Facebook kon-takutik ere egin ditut: Sabor de Frutas.

**Nola egiten dituzu postreak?**

Jende pila batek esaten dit: “Zer dauzkazu tresna industrialak? Thermomix?”. Eta ez, ez daukat ezer berezirik. Masa egiten laguntze-

ko tresna bat daukat, baina, gainontzean, dena eskuz egiten dut, etxeko erara. Ez dut Fondantik erabiltzen, bertako produktua soilik. Fondanta da plastilina moduko azukrea, dekoratuak egiteko balio duena. Baina lehortu egiten du tarta, eta niretzat garrantzitsuena da postrea goxoa egotea.

**Dekorazioa asko zaintzen duzu?**

Jendeak esaten dit zer gairen inguruan dekoratzea nahi duten tarta: Harry Potter, hippy, snowboard... Irudimena erabili behar izaten dut, gauetan hor egoten naiz lo hartu baino lehen tartekin pentsatzen [barreak].

**Oso gozozalea al zara?**

Bai, bai, niri denetarik gustatzen zait. Gehien txokolatzeko gozoak gustatzen zaizkit, baina baita opilak, tartak eta fruten postreak ere. Egaña aurretik pasatzen naizenean, beti esaten diot aitari: “Nik hemen lana egingo banu, porrot egingo luke negozioak!”.

**Zein da postrea ondo irteteko gakoa?**

Egiten ari zarena beti probatzen joatea. Kantitate asko ez dakizkit buruz, probatu ahala joaten naiz erabakitzen osagai bakoitzetik zenbat bota.✳



1. Beatriz Odrizola, Urola ibaia atzean duela.  
2. Madalenak labetik atera berritan. 3. Berak egindako tarta bat.



# “Utzi egin nahi dut”

**K**risitik irteteko eskuliburua beharko genuke, jaiotzearekin batera ez, beharbada, baina hartuko genuke nerabertan, mundura esnatu eta hari geure ahalmen flakoekin aurre egin behar diogunean, lehenengo maitasun kontuak ententitu ezinik ibiltzen hasten garenean, lehenengo maitasun hautsiak jotzen gaituenean, txanogorriaren dibortzioak edo otsoaren suizidioak parean harrapatzen gaituenean..

Krisitik irteteko eskuliburua beharko genuke, behar izan dugu 14 urteko alaba joan deneko sei urtean bizi izan duen mundutik irteera erabaki duenean, denboraldi ezin gogorrago baten ondoren, emaitzak entrenatzaileek eta teknikariak nahi zuten moduan heldu ez direnean, horien partez errietak, itsuskeriak, betozkoak jaso direnean, joan deneko sei urtean bizi izan duen gimnasia uztea erabaki duenean.

Krisia. Denboraldia ez zetorren erraza. Tartean, hamalau urtean izan duen asterik zitalena bizi izan du gure marimatrakak. Asteburu batean, lehiaketa zapatuan, lehiaketa jaietan, hamar azterketa lehiaketa ondoko astelehenera ostiralera, eta ostiralean bertan Espainia aldeko Mediterraneo kostara, lehiatzera zapatuan, lehiatzera jaietan, eta etxera astelehenera, institutuko egun alferrikakoa alferrik galduta. Astelehen iluntzean etxera sartu eta Espainia aldeko erdialdera bidean zen ostegun goizean goizago, 6:30ean, txoriak jaiki baino lehenago, izoztuta bazterrak, trenean sartu eta bi ordu eta erdiko bidaian Valladolidera, hara ailegatu eta kiroldegira zuzen, ostiralean lehiatuko ziren tapizaren gainean lehen urratsak egiteko, jokalekua ezagutzeko.

## Krisitik ateratzeko

Krisitik irteteko eskuliburua beharko genuke, kirol emaitzek lagundu ez dutenean, entrenatzaile eta teknikariak gimnastak estu hartu, tratatu txarretik ere baduen modu ezegokian



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Inoren alabak “utzi egin nahi dut” esaten duenean, krisia esan nahi du. Mundu oso baten galera

tratatu, eta alabak “ez dut gimnasia segitu nahi” esan duenean.

Eta astean hemeretzi ordu entrenatuz mundu oso bat osatu eta gero, inoren alabak “utzi egin nahi dut” esaten duenean, krisia esan nahi du. Mundu oso baten galera, bizi-modu oso batena, lagunarte jakin batena.

Krisitik irteteko eskuliburua beharko genuke horrelakoetan, etxean lau egunez ezeomo ibili partez, nondik nora jo ez genekiela, galera nola digeritu behar genuen sen ona beste errezeta gabe. Sen ona eta laguna, beti hor den bihotzeko hori. Bat eta bera nahikoa. Gure marimatraka gimnasia mundura zuzendu zuena eta krisi gaiztoaren garaian ere lagundu diguna. Hark biziberrituta joan gaiztaizkio entrenatzaile nagusi oso nagusiari eta esan dio alabak: “Utzi egin nahi dut, nekata nago, ez dut entrenamenduetan gozatzeko, ez dut zuen laguntza lehen bezala sentitzen”. Ordu eta erdiko konbertsazioaren ondoren, argi-izpi bat ikusi uste izan du gure marimatrakak, krisitik irteteko eskuliburua gabe ere.

Gimnasiari beste aukera bat emango omen dio. “Igal”.✘



Azpeititik kanpora bizi bazara ere  
jaso zure etxean herriko berri hilerro-hilero



**uztarria**  
uztarria@uztarria.com  
943 15 03 58

# PYME-ENTZAKO CLOUD SOLUZIOAK

